



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2005eko abenduaren 20ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko abenduaren hogeiko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2005-11-30eko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, bi mila eta bosteko azaroaren hogeita hamarrean egindako ohiko bileraren akta **onetsi du**.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2.- LEIOAKO UDALAREN UDAL LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONESTEA, BAI ETA KONTRATAZIO HORI ERAENDIKO DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ETA KLAUSULA TEKNIKOAN AGIRIAK ONESTEA ERE.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 791/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 14an hartu zuen 193. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeko buruak jakinarazi du Leioako udalaren udal lokalak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko tramiteak hasi behar direla, bere garaian Herederos de Claudio Alvarez Sarria, S.L. (HALSA, S.L). enpresari adjudikatu zitzaion zerbitzu honen aurreko kontratazio-aldia amaitu delako.

Ondorioz, horretarako idatzi diren administrazio baldintzen eta baldintza teknikoen agiriak banatu zaizkie taldeei, horiek onesteko tramiteekin hasteko asmoz. Era berean, lehiaketa irekiaren prozedura erabilita, beste 2 urtez kontratatu nahi da zerbitzua, beste 2 urte gehiagoz luzatu ahal izango dela. Lizitazio-oinarriaren aurrekonturako, 1.785.000,00 euroko zenbatekoa ezarri da (BEZ barne), urteko oinarriko.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak, EAJ/PNV eta EA taldeetako ordezkarien aldeko botoekin, honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Onetsi egingo da prozedura ireki eta lehiaketa adjudikazio-moduaren bitartez udal lokalak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea.
- Kontratazio-espedienteak tramitazio arrunta duela adieraziko da.
- Onetsi egingo dira kontratazio-prozedura eraenduko duten administrazio klausula eta klausula teknikoen agiriak.
- Onetsi egingo da 1.785.000,00 euroko gastua, urteko oinarri gisa, dagozkion aurrekontuen pentzura.
- Kontratua gauzatzeko aukera emango duten tramiteak hasiko dira.
- Kontu-hartzailetza Sailari jakinaraziko zaio, jakin dezan eta ondore egokiak izan ditzan.

Osoko bilkura abenduaren 20an egingo dela aurreikusi denez, eztabaida beste osoko bilkura batera atzeratu ahal izango dela jakinarazi die Batzordeko buruak bertaratu diren zinegotziei, hala eskatzekotan. Horrek gaia mahai gainean uztea eragingo du.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, Batzordean adierazi zuen bezala, klausuletako alderdi batzuk langileen eskubideen kontra daudela uste du eta, beraz, ezin du aldeko botorik eman.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PPko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; kontrako boto bi, EB-Berdeak taldeko bi ordezkariak; lau abstentzio ere egon dira, PSE-EE-PSOeko zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** Leioako udalaren Udal Lokalak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea onestea, bai eta kontratazio hori eraenduko duten administrazio klausulen eta klausula teknikoen agiriak onestea ere, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

3.- SAN BARTOLOMEKO KULTUR ARETOAREN ERAIKINAREN DESAFEKTAZIOA BEHIN BETIKO ONESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 823/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 13an hartutako 191. irizpenak honakoa dio:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, sail horretako sailburuaren 2005eko azaroaren 14ko aginduaren kopia bidali du (sarrera-erregistroko zk.: 7537/05); horren bitartez, "San Bartolomeko eskolak" hartzen zituen eraikina desafektatu aurreko baimena eman zitzaion Leioako Udalari.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da gaur egun San Bartolomeko Kultur Aretoa hartzen duen eta aurretiaz San Bartolomeko eskolak hartzen zituen eraikina desafektatu aurreko baimenarekin. Udalaren osoko bilkurak espedienteari buruzko iritzia eman beharko du, higiezina behin betiko desafektatu ahal izateko.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, San Bartolomeko Kultur Aretoaren eraikinaren desafektazioa behin betiko onestea **erabaki du**, Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

4.- TALDE POLITIKOEK TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOETAN DITUZTEN ORDEZKARIEN ORDEZPENEI BURUZKO PROPOSAMENAREN ALDAKETA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 806/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 14an hartu zuen 125. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren osoko bilkurak, iragan martxoaren 22an, honakoa zioen erabakia onetsi zuen:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko martxoaren 1ean hartu zuen 33. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Otsailaren 15ean egindako batzarrean, Informazio Batzorde honek 27/05 irizpena onetsi zuen; hona hemen, hitzez hitz:

“Egun honetan (sarrera-erregistroko zk.: 1.058/05), Talde Popularraren udal honetako bozeramaileak honako idazki hau aurkeztu du:

“Talde politikoek Tokiko Erakunde Autonomoetan dituzten ordezkarien ordezkien arautzeko proposamena Gaur egun Tokiko Erakunde Autonomoen estatutuek (Euskararen Erakundea eta Soinu Atadia Fundazioa) ez dute azaltzen euren Zuzendaritza Kontseiluen batzarretara talde politikoek ordezkioak agindu ahal izateko aukera, titularrak bertara joan ezin badaitezke. Udalaren Informazio Batzordeen funtzionamendu-araubideak, aldiz, bai ezartzen du aukera hori eta, ondorioz, talde politikoek mahaikide titularrak eta ordezkio mahaikideak izendatzen dituzte.

Alderdi Popularreko kideok Zuzendaritza Kontseiluen eta Informazio Batzordeen funtzionamendua parekatzea proposatu nahi dugu, alde horri dagokionez. Horretarako, gure ustez, beharrezkoa da Tokiko Erakunde Autonomoen estatutuak aldatzea.

Proposatu dugun aldaketak Estatutuen artikuluetan beste paragrafo bat sartzea ekarriko luke; honakoa izango litzateke testu berri honen kokalekua:

Euskararen Erakundearen estatutuetan, "6.1 Mahaikideak" artikuluan, lehenengo paragrafoaren ondoren.

Soinu Atadia Fundazioaren estatutuetan, "5. Mahaikideak" artikuluan, lehenengo paragrafoaren ondoren.

Horrela bada, proposatutako testua –berbera estatutu bietarako– honakoa izango litzateke:

“Talde politiko bakoitzak mahaikide titularraren ordezkio bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu; ordezkio mahaikideak Zuzendaritza Kontseiluaren batzarretan parte hartu ahal izango du, mahaikide titularra bertara joan ezin denean”.

Barne Araubideko Informazio Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta horri buruzko erabakia beste bilera batean hartzea erabaki du, Erakunde Autonomoen estatutuetako kokalekua zorrotzago aztertzeko.”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak honako irizpena eman du:

1.- Estatutuak aldatu behar izan gabe, onartu egingo da talde politiko bakoitzak, Erakunde Autonomo bakoitzeko Zuzendaritza Kontseiluan ordezkiatuko duen kidea izendatzeko unean, titularrak eta ordezkioak izendatzeko aukera izatea.

2.- Ontzat emango da talde bakoitzak titularrak eta ordezkioak izendatzeko egindako proposamena; hona hemen, zehatz-mehatz:

** Soinu Atadia fundazioa:*

- EAJ-PNV: Jesús Bilbao Curiel eta Javier Bidea Molinillo titularrak izango dira; Bixente Barreiro Asensio eta Ainara Urbieta Jáuregui, aldiz, ordezkioak.*
- PSE-EE-PSOE: María Nieves Hurtado Urtiaga titularra izango da; Mercedes Angulo Ordozgoiti, aldiz, ordezkioa.*
- PP: Arturo Aldecoa Ruiz titularra izango da; Aiala Eguiluz Rodríguez, Ignacio Gamero Delgado eta Xabier Olabarrieta Arnaiz, aldiz, ordezkioak, adierazitako ordenan.*



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- *EB-BERDEAK: Rubén Belandía Fradejas titularra izango da; Iñaki Gomendiourrutia Arnaiz, aldiz, ordezkoa.*
- *EA: Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jn.*

** Euskararen Erakundea:*

- *EAJ-PNV: Jesús Bilbao Curiel titularra izango da; Bea Resa Bardeci eta Javier Bidea Molinillo, aldiz, ordezkoak.*
- *PSE-EE-PSOE: Mercedes Angulo Ordozgoiti titularra izango da; José Manuel Toledo Cañamero, aldiz, ordezkoa.*
- *PP: Xabier Olabarrieta Arnaiz titularra izango da; Ignacio Gamero Delgado, Arturo Aldecoa Ruiz eta Aiala Eguiluz Rodríguez, aldiz, ordezkoak, adierazitako ordenan.*
- *EB-BERDEAK: Rubén Belandía Fradejas titularra izango da; Iñaki Gomendiourrutia Arnaiz, aldiz, ordezkoa.*
- *EA: Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jn.*

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeo ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, aho batez, talde politikoen tokiko erakunde autonomoetan dituzten ordezkarien ordezpenean arautzeko Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpena berrestea erabaki du.

EAJ-PNVko ordezkariak proposatu du Javier Bidea Molinillo jaunaren ordezkari Guillermo Mateo Kareaga jauna ezarriko dela Euskararen Erakundeko ordezkari kidea izateko.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio Euskararen Erakundea erakunde autonomoan Guillermo Mateo Kareaga jaunak Javier Bidea Molinillo jauna ordezkari, Mateo jaunak laneko segurtasun eta osasunari buruzko lanetan parte hartu ahal izan dezan.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeo ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Talde Politikoen Tokiko Erakunde Autonomoetan dituzten ordezkarien ordezpenei buruzko proposamena aldatzea **erabaki du**, Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

5.- GIZARTE ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAREN ADJUDIKAZIOA LUZATZEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 833/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 14an hartu zuen 120. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Gizarte Zerbitzuen Sailak jakinarazi du Udalaren osoko bilkuraren 1999ko maiatzaren 6ko erabakiaren bidez Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatibari adjudikatu zitzaiola Gizarte eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Programa, 10 urteko gehieneko iraupenez eta urtero luzatzeko aukeraz. Azken luzapena 2005eko abenduaren 31n amaitu da.

Gaur egun 6 gizarte-hezitzailek egiten dute lan Gizarte eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Programan. Horietako batek lehen mailako prebentzio programak egin eta garatzen ditu, bai eta boluntarioak koordinatu ere.

Sail horrek oso positibotzat jotzen du langile horiek egindako lana.

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak honakoa egitea egokia dela adierazi du: adjudikazioa 2006ko abenduaren 31ra arte luzatzearen aldeko irizpena ematea, eta gai hori Udalaren osoko bilkurak aztertzeke ipintzea, egingo duen hurrengo batzarrean.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Gizarte eta hezkuntzan esku hartzeko programaren adjudikazioa luzatzea **erabaki du**, Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

6.- LEIOAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA NAGUSIA HASIERAN ONESTEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 802/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 13an hartu zuen 191. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Kultura Arloko zuzendariak jakinarazi du 2004ko otsailaren 18an Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra indarrean sartu ostean, diru-laguntzen gainean dagoen ordenantza aldatu dela eta, horretarako, Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza Nagusia egin dela.

Aldi berean, Kultura, Kirol eta Aisia eremuetako 2006ko ekitaldirako diru-laguntza arrunten deialdia aurkeztu zaio Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzorde honi.

Azkenik jakinarazi da 38/2003 Legeak honakoa dioela: *“Era berean, zuzenean eman ahal izango dira Leioako Udalaren sail bakoitzean urteko aurrekontuetan izenez aurreikusitako diru-laguntzak, laguntza horiek arautzen dituzten hitzarmenetan aurreikusitakoaren arabera”*. Puntu honetan, Batzorde honek txostena egiteari kalterik eragin gabe eta eragindako erakundeei 2006ko ekitaldirako diru-laguntzak emateko tramiteak arintzearen, Alkatetza Dekretuaren bitartez onetsiko dira.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak egoki iritzi aldeko irizpena emateari, eta Udalaren osoko bilkurak honakoa egiteari:

1. Hasieran onetsiko da diru-laguntzak ematea arautzen duen udal ordenantza nagusia, espedientean azaldu diren termino berberetan.
2. Espedientea jendaurrean azalduko da. Horretarako iragarkia argitaratuko da udalaren iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita, egoki irizten diren erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezten.
3. Jendaurrean azaltzeko epea amaitutakoan erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu bazaio espedienteari, berriro ere bihurtuko zaio osoko bilkurari, ebatz dezan.
4. Jendaurrean azaltzeko epean erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu ez bada, hasieran onesteko erabakia automatikoki behin betikoa dela ulertuko da.
5. Behin betiko erabakia, hala badagokio, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Leioako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza Nagusia hasieran onestea **erabaki du**, Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

7.- “LEIOAKO I. GAZTE PLANA” EZARRI ETA GARATZEARI BURUZKO 832. DEKRETUA BERRESTEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 803/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 13an hartu zuen 192 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2005eko azaroaren 8ko 177. irizpenaren arabera, *“Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak egoki iritzi dio Leioako Gazte Planari buruzko 832/05 dekretua 2005eko azaroan egin beharreko osoko bilkurak berresteko ez ipintzeari. Hori dela eta, Gazte Plana egiten dabiltzan teknikariak Batzorde honetan azaldu beharko dira ahalik eta arinen, gaur arte egindako lanak azaltzeko”.*

Leioako I. Gazte Plana egiteko ardura duen Kultura Arloko teknikaria Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordearen 2005eko azaroaren 22ko batzarrerara bertaratu zen, Batzorde honi garrantzitsuak zirela uste zuen gaien berri emateko, Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordearen bi mila eta bosteko azaroaren 8ko 177. irizpenean azaldutakoari jarraituz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

184. irizpenaren arabera, *“Ordezkarri politiko guztiek gaia eztabaidatu ostean, (...) egoki iritzi dio gai hau mahai gainean eta irizpenik gabe uzteari, udalaren osoko bilkuraren hurrengo batzarrean eztabaidatzeko. José Manuel Toledo Cañamero PSE-PSOeko ordezkariak agerrarazi nahi du ahalik eta lasterren bidali behar zaiela lan-mahaiaren azken memoriaren kopia ordezkari politiko guztiei, osoko bilkura egin aurretik aztertu ahal izan dezaten”.*

Beharrezkoa da gaia udalaren osoko bilkuran aztertu aurretik Batzorde honen irizpena ematea eta, beraz, 2005eko urriaren 27ko 832 dekretua osoko bilkuraren hurrengo batzarrean berresteko eskatu da. Honakoa dio, hitzez hitz:

“Kultura Arloko zuzendariak Udalaren osoko bilkurak “Leioako I. Gazte Plana”rekin zerikusia duten honako alderdi hauek onets eta berrets ditzan proposatu du:

- 1.- 2004. urtean udalerrri honetan garatu den “Leioako I. Gazte Plana” ezarriko da.*
- 2.- 2005. urtean “Leioako I. Gazte Plana”ren jarduera-ildoak garatuko dira, honako egutegi honen arabera:*
 - 2005eko azken hiruhilekoa:*
Leioako I. Gazte Plana onetsi
 - 2005-2006:*
 - . Leioako I. Gazte Plana garatu: Egiturak, lan-mahaiak eta Leioako I. Gazte Planean parte hartuko duten udal arloen sailen arteko eta sektoreen arteko batzordeak.*
 - . Proiektua guztiz ezartzeko aurreikusi diren esku-hartzeko ildoak eta ekintzak abiarazi.*
 - 2006-2007:*
 - . Ezartzeko prozesuaren ebaluazioa egin: segimendu ebaluazioa, bitarteko ebaluazioa, emaitzen ebaluazioa eta eraginaren ebaluazioa.*

Ondorioz, **HONEN BITARTEZ**, honakoa xedatu dut:

- 1.- “Leioako I. Gazte Plana” ezarri eta garatzea onetsiko da, arestian aipatutako egutegiaren arabera.*
- 2.- Dekretu hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean berretsiko da, hau da, 2005eko azaroaren 24ko batzarrean.*
Hori agindu eta sinatu du Karmelo Sainz de la Maza Arrola alkate jaunak, Leioan, bi mila eta bosteko urriaren hogeita zazpian eta, nik, idazkariak, hori guztia ziurtatu dut”.

Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak egoki iritzi dio aldeko irizpena emateari udalaren osoko bilkuraren hurrengo batzarrean gai hau berresteari, EAJ-PNV (4), PSE-EE-PSOE (2) eta EA (1) taldeen aldeko botoekin eta PP taldeko ordezkariaren abstentzioarekin.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du Leioako I. Gazte Plana ezartzea onesteko dekretua ekarri dela osoko bilkura honetan berresteko. Bere talde politikoa bertan egon zen Gazte Plana sortu zenean,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

lehenengo batzarretan parte hartu baitzuen. Azaldu duenez, bere taldea irten egin zen Gazte Planaren batzar batetik, bere talde politikoa bertan egoteko gutxieneko baldintzak betetzen ez zirela uste zuelako: talde terrorista bateko presoak babesteko zeinu argiak zituen ordezkari bat zegoen bertan. Duela urtebete izan zen batzar horren ostean, ez du ikusi Gobernu Taldeak inolako ahaleginik egin duenik bere talde politikoa ordezkariaren bat egon dadin Gazte Planaren batzarretan. Hori dela-eta esan du euren ustez Gobernu Taldeak ahaleginen bat egin behar zuela herritarren legezko ordezkariak, ordezkariak duen indar politikoa batek, batzarretan parte hartu zezan. Era berean adierazi du ez duela bestelako batzarren berri jaso eta, ia-ia, dekretu hau izan dela hasierako batzar horien ostean Batzordean izan duen lehenengo berria.

Euren ustez ez dira baldintza nahikoak egon bere talde politikoa dekretu hau eta bertan xedatutakoa onesteko, baina horrek ez du esan nahi Gazte Plana, udalerrirako gazte plan bat, egoteko beharra onesten ez duenik. Baina euren ustez Gobernu Taldeak ez ditu gutxieneko bideak jarraitu Gazte Plan hau sor zedin, eta eskatzeko moduko gutxieneko baldintzetan gara zedin, bere talde politikoa ustez behintzat.

Hori guztia dela eta, azaldutako arrazoiak kontuan hartuta, ez dute kontrako botorik emango, baina aldeko botorik ere ezin dute eman. Izan ere, euren ustez ez dira gutxieneko baldintzak egon Gobernu Taldeak ez duelako ahaleginik egin euren taldea bertan egon ahal izateko. Horrenbestez, abstenitu egingo dira.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Iaz ere gai honi berari buruz hitz egin zutela azaldu du eta, ondoren, Batzordean gaia berriro aztertzei aukera izan dutela. Bere taldearen asmoa beti izan da hemen ordezkariak gauden talde guztiok eta Gazte Planaren batzarretan parte hartzei eskubidea duten herritar, erakunde eta elkarte guztiak ere, guztiontzat modu normalizatu eta erosoenean parte hartzei aukera izateko moduko baldintzak egon daitezela.

Euren ustez, etorkizunari begira, hori horrela izateko ekimena hartu du Gobernu Taldeak eta, gainera, Gazte Planak dioena ez dago lekuz kanpo. Lortzen diren ondorioetako asko sen onekoak dira, hau da: etxebizitza arazoa dago, aisia arazoa, parte hartzei, zenbait zerbitzu publikotan parte hartzei (esaterako liburutegian), etab., eta bere ustez denok daude ados arazoi horiei dagokienez.

Adierazi duenez, bozkatu zein ez bozkatu, luze eztabaida liteke eztabaida honen sorrera gustukoa izan zuten ala ez erabakitzeko. Baina bere ustez ez du inolako zentzurik: alde batetik ondorioek eta bestetik Gazte Planak eskaintzen dituen jardura proposamen batzuk konbentzitzen dutelako. Eta horregatik, edukian oinarrituta eta Gobernu Taldeak, hemendik aurrera, mundu osoan eztabaida politikoa edo ideien eztabaidan erositakoa osoz parte hartzei eta zirikarik ez egoteko moduan, bere esku duena egiteko erantzukizuna hartuko duelako ustean, aldeko botoa emango diote azterlanari eta bertako ondorioei.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazazpi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak eta EAKo ordezkariarena; lau abstentzio ere egon dira, PPko zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, "Leioako I. Gazte Plana" ezarri eta garatzeari buruzko 832. Dekretua berrestea **erabaki du**, Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

8.- 2006. URTERAKO AURREKONTU NAGUSI FINKATUA ONESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko abenduaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 809/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko abenduaren 14an hartutako 207. irizpenak honakoa dio:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honek, 2005-11-23an egindako bileran, eta 187. irizpenaren bidez, Gobernu Taldeak 2006ko ekitaldirako Aurrekontu Nagusi Finkatuaren proiektua aurkeztu zuen. Horrela bada, abenduaren 12ra arteko epea eman zuen alegazio, iradokizun eta zuzenketak aurkezteko.

Ondoren agertzen dira Udal Aurrekontuaren, Erakunde Autonomoen Aurrekontuaren eta Aurrekontu Nagusi Finkatuaren zehaztasunak, kapituluka laburtuta:

**UDAL AURREKONTUA
2006**

SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	2005. URTEA	2006. URTEA
1	ZUZENEKO ZERGAK	4.738.188,89	5.251.927,18
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.572.500,00	1.617.500,00
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	3.534.076,30	3.856.765,34
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	13.261.855,22	16.711.755,55
5	ONDARE-SARRERAK	398.145,84	254.867,40
6	INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA	742.978,59	1.056.036,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	5.467.379,26	3.147.383,72
	GUZTIRA	29.715.124,10	31.896.235,19

GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	2005. URTEA	2006. URTEA
1	LANGILERIAREN GASTUAK	7.355.642,23	7.967.243,33
2	GASTU ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	10.328.919,51	11.298.652,95
3	FINANTZA GASTUAK	3.500,00	4.200,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.974.613,67	5.109.942,72
6	INBERTSIO ERREALAK	7.022.442,68	7.456.196,19
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	30.006,01	60.000,00
	GUZTIRA	29.715.124,10	31.896.235,19

Soinu-Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Batzordeak 2005-11-14an onetsi zuen bere aurrekontua. Hauxe da onetsitako aurrekontua, kapituluka:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**SOINU-ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUA
2006**

SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	2005. URTEA	2006. URTEA
3	Tasak, prezioak eta bestelako gastuak	470.886,00	478.947,00
4	Transferentzia arruntak	1.004.485,00	1.074.411,00
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00	6,00
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	1.475.377,00	1.553.364,00

GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	2005. URTEA	2006. URTEA
1	Langileen ordainsariak	1.323.365,00	1.399.302,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak erosteko	118.000,00	122.350,00
3	Interesak	6,00	6,00
4	Transferentzia arruntak	21.000,00	22.000,00
6	Inbertsio errealak	13.000,00	9.700,00
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00	6,00
	GASTUAK GUZTIRA	1.475.377,00	1.553.364,00

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Batzordeak 2005-11-14an onetsi zuen bere aurrekontua. Hona hemen, zehatz-mehatz:

**EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN
AURREKONTUA
2006**

SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	2005. URTEA	2006. URTEA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK		
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	117.388,10	131.120,07
4	Transferentzia arruntak	770.820,71	835.166,97
5	Ondare-sarrerak	600,00	600,00
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	888.808,81	966.887,04

GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	2005. URTEA	2006. URTEA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK		
1	Langileen ordainsariak	675.389,99	742.279,32
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak erosteko	201.437,00	212.146,62



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

3	Interesak	421,82	438,70
4	Transferentzia arruntak	4.000,00	4.160,00
	B) KAPITAL ERAGIKETAK		
6	Inbertsio errealak	7.560,00	7.862,40
	GASTUAK GUZTIRA	888.808,81	966.887,04

Aurrekontu finkatua

SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	GORDAILUA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1	Zuzeneko zergak	5.251.927,18
2	Zeharkako zergak	1.617.500,00
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	4.466.832,41
4	Transferentzia arruntak	17.390.381,81
5	Ondare-sarrerak	255.467,40
	B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6	Inbertsio errealak besterentzea	1.056.036,00
7	Kapital transferentziak	3.147.383,72
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	33.185.534,52

Aurrekontu finkatua

GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENDAPENA	GORDAILUA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1	Langileen ordainsariak	10.108.824,65
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak erosteko	11.633.149,57
3	Interesak	4.644,70
4	Transferentzia arruntak	3.905.151,01
	B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6	Inbertsio errealak	7.473.758,59
7	Kapital transferentziak	60.000,00
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00
	GASTUAK GUZTIRA	33.185.534,52

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak zatizko zuzenketan aurkeztu dizkio 2006. urteko aurrekontu-proiektuari. Hona hemen:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ALDERDI SOZIALISTA zuzenketak						
ZUZENKETA	TALDE POLITIKOA	Taldearen zenbatgarren zuzenketa	PARTIDA	KONTZEPTUA	EGUNGO ZENBATEKO A	PROPOSATU TAKO ZENBATEKO A
1	PSE-EE-PSOE	1	481100032180	Herri eskolaren informazioa	3.568,68	12.384,00
2	PSE-EE-PSOE	2	481230032350	Emakumearentzako aholkularitza psikologikoa	5.553,19	18.925,88
3	PSE-EE-PSOE	3	481120032290	Tokiko Agenda 21 garatzea	41.280,00	80.000,00
4	PSE-EE-PSOE	4	490000031110	Kanporako diru-laguntzak	88.073,51	106.911,59
5	PSE-EE-PSOE	5	481100042190	Hezkuntza Jardunaldiak	3.488,44	11.991,84
6	PSE-EE-PSOE	6	481100042230	EHU hitzarmena	6.010,12	24.768,00
7	PSE-EE-PSOE	7	481150045140	Gabonetako kultur ekintzak	29.543,91	61.920,00
8	PSE-EE-PSOE	8	481000031380	Erretiratu dinamizazioa Etxeen	16.500,00	52.000,00
9	PSE-EE-PSOE	9	Berria	Hezkuntza Saila	0,00	30.960,00
10	PSE-EE-PSOE	10	Berria	Genero indarkeriaren kontrako kanpaina eta aurrez aurreko plana	0,00	30.000,00
11	PSE-EE-PSOE	11	Berria	Gizarte Ongizatearen argitalpenak	0,00	24.768,00
12	PSE-EE-PSOE	12	Berria	Auzoen deszentralizazio administratiboari buruzko azterlana	0,00	40.000,00



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

13	PSE-EE-PSOE	13	Berria	La Avanzada errepidearen alboko bideen ingurumenaren gaineko eragina murrizteko neurrien azterlana	0,00	180.000,00
14	PSE-EE-PSOE	14	Berria	Unibertsitateko herritar ibiltarien azterlana; egoera eta beharrianak	0,00	43.000,00
15	PSE-EE-PSOE	15	Berria	Immigrazioari buruzko proiektuak	0,00	60.000,00
16	PSE-EE-PSOE	16	Berria	Auzoetako garraioak hobetzeko azterlana	0,00	60.000,00
	PSE-EE-PSOE			GEHITUTAKOIA, GUZTIRA	643.609,46	
FINANTZIAZIOA						
17	PSE-EE-PSOE	17	226030045002 GASTU TXIKIAGOA	Herritarrentzako informazio-zirkularrak	291.900,98	273.900,98
18	PSE-EE-PSOE	18	481160045090 GASTU TXIKIAGOA	Jaiak	250.000,00	220.000,00
19	PSE-EE-PSOE	19	481150045340 GASTU TXIKIAGOA	Mendibile Jauregia elkartea	60.000,00	36.000,00
20	PSE-EE-PSOE	20	42200001 GASTU TXIKIAGOA	Udalbiltza-Udalbide	23.220,00	0,00
21	PSE-EE-PSOE	21	130020091140 GASTU TXIKIAGOA	Zehaztu gabeko bestelako ordainsariak	372.727,62	47.131,00
22	PSE-EE-PSOE	22	16000400000 GASTU TXIKIAGOA	Elkarkidetzako kuotak	56.246,36	0,00
23	PSE-EE-PSOE	23	16000401000 GASTU TXIKIAGOA	Elkarkidetzako laneko kuotak	16.546,48	0,00
24	PSE-EE-PSOE	24	226900012180 GASTU TXIKIAGOA	Gastu orokorra, % 5	582.409,35	432.409,35



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

	PSE-EE-PSOE			FINANTZIAZIOA, GUZTIRA	643.609,46
--	-------------	--	--	-------------------------------	-------------------

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak adierazi du ez dela aurrekontuaren osoko zuzenketarik aurkeztu, bere talde politikoak akordioa lortu nahi baitzuen zatizko zuzenketa batzuk onartzeko, ondoren azalduko duen bezala.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde honetako burua dela, Leioako Udal Talde SOZIALISTAK aurkeztutako zuzenketak Gobernu Taldeak aurkeztutako aurrekontuan inplizituki bazeudela adierazi du. Izan ere, horiek guztiak aurrekontuko kreditu orokorren pentzura egin daitezke eta, 2006ko ekitaldian, Udalaren Informazio Batzordeek zehatz azter dezakete PSE-EE-PSOEk aurkeztutako gastuak, horiek egitea erabakitzen bada.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak adierazi dute aintxe izan dutenez PSE-EE-PSOE taldeak aurkeztutako zuzenketen berri, ez dutela horiek aztertzeke astirik izan eta, beraz, orain ez dutela horri buruzko iritzirik emango.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak Alderdi Popularrak aurkeztu dituen zuzenketak eman dizkio Batzorde honi. Aurrekontuaren osoko zuzenketa bat eta zatizko 59 zuzenketa dira guztira. Hona hemen, zehatz azalduta:

Leioako Udalaren 2006ko Aurrekontu Proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa

Leioako Udalako Alderdi Popularra Udal Taldeak honako OSOKO ZUZENKETA hau aurkeztu dio Leioako Udalaren 2006. urterako Aurrekontu Proiektuari.

JUSTIFIKAZIOA

Iragan azaroaren 23an udaleko gobernu taldeak Leioako Udalaren 2006ko aurrekontu-proiektua aurkeztu zuen.

Lehenengo eta behin nabarmendu behar da udalerriko gobernuaren alderdiek (EAJ eta EA) ez dutela aurretiko inolako kontsultarik egin -gutxienez gure talde politikoari- akordio maila handiagoan oinarritutako aurrekontuak lortzeko. Gauzak horrela, EAJ eta EAK ados ipintzeko inolako ahaleginik egin gabe sortu dira 2006rako kontuak.

Gainerakoan, 2006rako aurrekontu proiektuak, aurreko ekitaldietako aurrekontuek zuten akats berbera dute: ez da inolako irtenbiderik eskaintzen udalerraren arazo nagusietarako. Eta gabezia hori, udal agintaldiaren erdia igaro denean, bereziki larri bihurtu da.

La Avanzada errepideak sortu dituen ingurumen kutsadura eta oztopo-efektuak geure artean daude oraindik eta ez da horientzako behin betiko irtenbiderik aurreikusitako. Garraio publikoaren arazoa ere bertan dago, bai eta auzo batzuetako aparkaleku eza ere. Proiektu garrantzitsuak dira Leioarentzako, udaletxea eta udaltzaingoaren egoitza berritzeko beharra bezala. Kiroldegi berriaren eta LHI berriaren proiektuak ere, geldituta daude.

Egoera hori dela, geure taldeak uste du, inolako zalantzarik gabe, geure gobernu taldea nekatuta dagoela, ez duela ekimenik, eta ez duela inolako ilusiorik azaltzen Leioa eredu



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

udalerrri izateko. 2006rako aurrekontu-proiektua eta Leioan dagoeneko kroniko bihurtu diren arazoak konpontzeko irtenbiderik eza dira ekimen eta ilusio falta horren adibide garbientakoak.

Beste alde batetik, euren ideia nazionalista ortodoxoenari jarraituz, EAJ eta EA alderdiek Udalbiltza proiekturako aurrekontu-partida mantendu dute. Geure kale-izendegitik ETA talde terroristako hainbat kideren izenak kendu nahi ez dituen gobernu talde berberak, aurten ere, leioaztar guztien dirua erabiltzen du Udalbiltzak dakarren haustura eta banaketa proiektua ordaintzeko.

Azkenik, oposizioko talde politikoen lana nabarmen lermatuta dago, bitartekorik ez dugulako, eta aurrekontu hauek ez dute egoera hobetzeko irtenbiderik eskaintzen. Gobernu taldeak, alkate jauna buru duela, denbora igarotzea uzten du, badakielako bitarteko eskasak dituen oposizioa bermerik onena dela gobernuan egiten duen lana ahalik eta gutxien kontrolatzeko.

Azaldu diren arrazoi horiengatik guztiengatik, Alderdi Popularra udal taldeak oro har ez du onartzen EAJ eta EA taldeen aurrekontu proiektua eta, beraz, osoko zuzenketa aurkeztu die 2006ko udal kontuei.

ALDERDI POPULARRA						
zuzenketak						
ZUZENKETA	TALDE POLITIKOA	Taldearen zenbatgarren zuzenketa	PARTIDA	KONTZEPTUA	EGUNGO ZENBATEKO A	PROPOSATUTAKO ZENBATEKOA
25	PP	1	423000012150	Diru-laguntzak terrorismoaren biktimen elkarteei	0,00	50.000,00
26	PP	2	424000012150	Diru-laguntza Bizkaiko UHUNi	0,00	40.000,00
27	PP	3	643050055990	La Avanzada guztiz estaltzeko aurreproiektua	0,00	125.000,00
28	PP	4	643080055990	Udaletxe berriaren proiektua. Udaltzaingoaren egoitza	0,00	125.000,00
29	PP	5	622040255990	La Avanzada errepidearen lurpeko pasabideak hobetzea	0,00	35.000,00
30	PP	6	643060055990	Planetarioaren proiektua / ingurumen gela	0,00	100.000,00
31	PP	7	643090055990	Azoka-barrutiaren proiektuari buruzko azterlana	0,00	25.000,00
32	PP	8	643095055990	Mikrobusen hiriarteko sareari buruzko azterlana	0,00	25.000,00
33	PP	9	629010055990	EHUren Leioako Campusa hobetzea	0,00	60.000,00
34	PP	10	643097055990	Udal zaharberritzeari merkatua buruzko	0,00	25.000,00



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

				azterlana		
35	PP	11	609055055990	Auzoak edertu eta apaintzea	0,00	23.000,00
36	PP	12	643098055990	Zaborra lupetik biltzeko sistemaren ezarpenari buruzko azterlana	0,00	25.000,00
37	PP	13	643099055990	Pinuetako aparkaleku berriari buruzko azterlana	0,00	25.000,00
38	PP	14	100000011114	Udal talde politikoetako langileak	0,00	80.000,00
39	PP	15	Hainbat partida	Kontratazioko udal bulegorako laguntza	0,00	30.000,00
40	PP	16	222990012170	Udalaren webgunea hobetzea	13.500,00	15.000,00
41	PP	17	226030052101	Udal aldizkaria hobetzea	72.355,00	30.000,00
42	PP	18	226030052200	Leioako garraio publikoari buruzko argibideak	0,00	15.000,00
43	PP	19	Hainbat partida	Gazteentzako aisia alternatiborako programa	0,00	30.000,00
44	PP	20	481150045070	Kultur taldeentzako diru-laguntza	20.000,00	20.000,00
45	PP	21	481150045140	UGPko Gabonetako kultur ekintzak	29.545,91	24.000,00
46	PP	22	481150045350	Leioako Hiria literatur saria	0,00	18.000,00
47	PP	23	481150045360	Urriaren 31 ospatzea	0,00	18.000,00
48	PP	24	481170045400	Liburu Azoka	0,00	30.000,00
49	PP	25	481180046060	Kirol taldeentzako diru-laguntza	40.251,40	10.000,00
50	PP	26	481180046150	Euskal Herriko txirrindularitza Itzuliaren etapa	0,00	40.000,00
51	PP	27	481180046170	Intal xake-txapelketaren proiektua	0,00	20.000,00
52	PP	28	481100042240	Haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta DBHko testu-liburuetarako diru-laguntza	0,00	240.000,00
53	PP	29	481100042250	Hezkuntzaren eskualde-azoka	0,00	30.000,00
54	PP	30	481100032200	Birziklatzeari eta iraunkortasunari buruzko eskolako kanpaina	0,00	12.500,00



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

55	PP	31	481100032300	Eskolako osasuna: tabakoaren kontrako kanpaina	0,00	18.000,00
56	PP	32	480080031400	Pobreziaaren kontrako borroka. Premiazko ostatu ematea	3.000,00	20.000,00
57	PP	33	480080031500	Aurreikusitako gabeko gizarte larrialdiarako beharrianak	0,00	15.000,00
58	PP	34	481260032400	Tratu txarrak jasotzen dituzten pertsonen aldi baterako ostaturik ematea	0,00	21.000,00
59	PP	35	481080032350	Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen laguntza telematikoa emateko programa pilotua	0,00	18.000,00
60	PP	36	481240032350	Anorexia eta bulimiar buruzko aholkularitza	0,00	15.500,00
61	PP	37	481245032360	Familiako indarkeria kasuetarako aholkularitza	0,00	18.000,00
62	PP	38	481247032360	Seme-alaben tratu txarrak jasotzen dituzten gurasoentzako laguntza psikologikoa	0,00	18.000,00
63	PP	39	481095031300	Leioako etorkinei buruzko azterlana	0,00	15.000,00
64	PP	40	481220032410	Hurtzaindegien ordainketak	0,00	12.000,00
65	PP	41	481220032390	Alkohola edateari buruzko kanpaina	0,00	15.500,00
66	PP	42	481010044520	Minusbaliatu larriak	7.420,00	6.000,00
67	PP	43	643011055990	Life-Ingurumena proiektua prestatzea	0,00	25.000,00
68	PP	44	643010055990	Udondo ibaiaren heze-guneari buruzko azterlana	0,00	21.000,00
69	PP	45	643015055990	Leioako fauna, flora eta geologiaren buruzko azterlana	0,00	12.000,00
70	PP	46	643018055990	Leioako geologia bolkanikoa balioztatze proiektua	0,00	12.000,00
71	PP	47	643019055990	Leioako zaraten mapa egitea	0,00	20.000,00
72	PP	48	481120032230	Tokiko merkataritza sustatzea	13.426,00	60.000,00
73	PP	49	481120032300	"Leioako udalaren merkataritza" saria	0,00	18.000,00
	PP			GEHITUTAKOAK, GUZTIRA		1.705.500,00



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

FINANTZIAZIOA						
74	PP	50	1120200	Ondasun higiezinaren gaineko zerga	2.200.000,00	2.400.000,00
75	PP	51	1140000	Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga	350.000,00	420.000,00
76	PP	52	1130000	Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga	1.501.927,18	1.651.927,18
77	PP	53	2820000	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	1.617.500,00	1.767.500,00
78	PP	54	3120100	Hirigintzako lizentziak	161.750,00	211.750,00
79	PP	55	7710500	Hirigintzako konpentsazioak	686.942,72	1.036.942,72
	PP			DIRU-SARRERA HANDIAGOA, GUZTIRA	970.000,00	
80	PP	56	422000012150	Udalbiltza, udalerrien arteko lankidetzak	23.220,00	0,00
81	PP	57	226900012180	Gastu orokorra, % 5	582.409,35	30.129,35
82		58	629010055990	EHU Artea kalean	60.000,00	0,00
83		59	643000055990	Ikerketa, azterlan eta proiektuak	180.000,00	80.000,00
				GASTU TXIKIAGOA, GUZTIRA	735.500,00	
				FINANTZIAZIOA, GUZTIRA	1.705.500,00	

Pko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak bere talde politikoak aurkeztu dituen zuzenketak eta aurrekontuaren osoko zuzenketa aurkezteko arrazoiak azaldu ditu.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde honetako burua dela, Eako Ernesto Angel Triqueros Santacoloma jaunak eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak Alderdi Popularrak aurkeztu dituen zuzenketa batzuekin ados ez daudela azaldu dute baina, nolana ere, ez daudela ados diru-sarreraren handiagoen finantziarioa zeretatik lortzearekin; are gehiago, kontuan hartzen bada 2006rako zerga ordenantzen aldaketa onetsi zenean PP talde politikoa izan zela zergarik ez igotzearen alde bozkatu zuena.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak adierazi du une honetan PPren zatizko zuzenketak aurkeztu direnez, abstenitu egingo dela horiek aztertu arte. Nolanahi ere, bere ustez demagogikoa da gastu handiago hori zergen diru-sarreraren bitartez finantzatzea.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Bozketa egin ostean, gaitziritzi egingo dira PSE-EE-PSOE alderdiak aurkeztutako zatizko zuzenketak. Honakoa izan da bozketaren emaitza: gaitziritztearen aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jauna, EAJ-PNVko Ainara Urbieta Bergara andrea, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrea eta EAko Ernesto Angel Triqueros Santacoloma jauna; abstentzioak: PPko Iñaki Gamero Delgado jauna, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna; gaitziritztearen kontrako botoak: PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andrea eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andrea.
2. Bozketa egin ostean, gaitziritzi egingo da ALDERDI POPULARRAK aurkeztutako osoko zuzenketa. Honakoa izan da bozketaren emaitza: gaitziritztearen aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jauna, EAJ-PNVko Ainara Urbieta Bergara andrea, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrea, EAko Ernesto Angel Triqueros Santacoloma jauna eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna; abstentzioak: PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andrea eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andrea; gaitziritztearen kontrako botoak: PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta PPko Iñaki Gamero Delgado jauna.
3. Bozketa egin ostean, gaitziritzi egingo dira ALDERDI POPULARRAK aurkeztutako zatizko zuzenketak. Honakoa izan da bozketaren emaitza: gaitziritztearen aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jauna, EAJ-PNVko Ainara Urbieta Bergara andrea, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrea, EAko Ernesto Angel Triqueros Santacoloma jauna eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna; abstentzioak: PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andrea eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andrea; gaitziritztearen kontrako botoak: PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta PPko Iñaki Gamero Delgado jauna.
4. Onetsi egingo da 2006ko ekitaldirako aurrekontu nagusi finkatua. Aurrekontu horren kapitulukako eta erakunde autonomo bakoitzeko laburpena aipatzen da Batzorde honen irizpenean.
5. Ondorioz, onetsi egingo dira aurrekontu horretan jaso diren langileen plantillak.
6. Onetsi egingo da aurrekontua burutzeko udal araua.
7. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen gaineko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, horrela onetsitako aurrekontuak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren, jendaurrean azalduko dira hamabost eguneko epean. Interesdunek epe horren barruan aurrekontuak aztertu eta erreklamazioak egin ahal izango dizkiote osoko bilkurari.
8. Aurrekontua behin betiko onetsi dela ulertuko da aipatutako 15 eguneko epean inork erreklamaziorik aurkezten ez badu; bestela, osoko bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

9. Osoko Bilkuraren hurrengo batzarrerako gai zerrendan sartuko da 2006ko aurrekontu nagusi finkatuari buruzko puntua.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du aurrekontu-programa ona diseinatzeko ahalegina egin dela kontuan hartuta eta zuzenketa aurkezteko lana kontuan hartuta honako metodologia hau iradokitzen duela, aurrekontu-proposamena eztabaidatzeko: lehenengo, Alderdi Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketa bozkatuko litzateke; eta hori onartuko ez balitz, hau da, aurrekontuak bere izapidean aurrera jarraituko balu, Alderdi Sozialistak aurkeztutako zatikako zuzenketak eztabaidatuko lirateke, eta denborari dagokienez aurkezten lehenak izan zirela kontuan hartuta, iradoki du hurrenkera honetan egitea: Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketen multzoari –40 zuzenketa dira-, Gobernu Taldeak hiru transakzio-zuzenketa aurkeztu dizkio, eta, ados baldin badaude, 13tik 26ra bitarteko eta 30etik 40ra bitarteko zuzenketen gaineko transakzioa izango lirateke, hau da, Gobernu Taldeak hiru zuzenketa adostea proposatzen du, eta Alderdi Sozialistak onartzen baldin baditu, 13tik 26ra bitarteko eta 30etik 40ra bitarteko zuzenketak baztertuko lirateke. Ondoren, 1etik 29ra bitarteko zuzenketak eztabaidatuko lirateke, 13a eta 26a izan ezik, eta ondoren Alderdi Popularraren zatikako zuzenketak defendatuko lirateke. Horiek osotasunean hartuta bozkatu beharko lirateke, izan ere finantzaketak ulertzen du zuzenketa horiek modu orokorrean egiten direla, eta ez banan-banan; azkenean Aurrekontuan zuzenketa-proposamenik izan ez duen zatia bozkatuko da.

Adierazi du azaldutakoa denek onartzen zutela jotzen duela; hortaz, Alderdi Popularrak egindako osoko zuzenketaren defentsari ekin zaio lehenik.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasuna taldeek osaturiko gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuari osoko zuzenketa zergatik aurkeztu dioten azalduko duela laburki.

Lehenik, adierazi du azpimarratu behar dutela Gobernu Taldeak beren ustez ez duela aurretiaz borondaterik azaldu beste taldeekin adostasun handiagoa heltzeko, eta zehazki, bere taldearekin behintzat ez. Adierazi du beraien ustez alde horretatik EAJ eta EA taldeek ez dutela ahaleginik egin Leioarako aurrekontuek alderdi politikoen arteko adostasun handiagoa izan zezaten.

Adierazi du 2006. urterako aurrekontu-proiektuek gobernu talde horrek aurkeztutako aurreko aurrekontuek zuten akats berdina dutela, izan ere irtenbiderik ez da aurkezten udalerrian dauden arazo nagusietarako. Gabezia hori 2004 eta 2005eko aurrekontuetan larria baldin bazen, gabezia horri eustea are larriagoa iruditzen zaie, Gobernu Taldearen agintealdiaren erdian daudelako, edo erditik aurrerago, eta udalerriko arazo nagusiei irtenbideak bilatu gabe jarraitzen denez, bereziki larria iruditzen zaie.

Adierazi du beren ustez konpondu ez diren alderdi hauek daudela: La Avanzada estaltzea, osoko zuzenketa aurkezteko justifikazio modura. La Avanzadak arazoa izaten jarraitzen du Leioarentzat; ingurumen kutsadura sortzen du, eta begi-bistako hirigintza-arazo



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

baten sortzailea da, izan ere udalerrria bitan banatzen du. Orain arte emandako irtenbideek La Avanzada oraindik ere hainbat hamarkadatan jasaten jarraitu beharra dakarrela uste dute. La Avanzadaren ondoan hainbat urbanizazio berri daudela aipatu du, hainbat ekipamendu berri daudela aurreikusita, ez soilik Artazako parkea baizik eta baita Pinosoloko parke berrira ere. Udalerrirako egoitza- eta parke-ekipamendu horiek guztiek La Avanzadak sortutako ingurumen-kutsadura jasan edo pairatu behar izango dute. Esan du Toki Agenda 21erako orain dela gutxi aurkeztu den ingurumen-diagnosiaren txostenean bertan jasotzen dela La Avanzadak sortzen duen zarataren maila oso handia dela, zarata-maila jasanezina dela adierazi du, eta, hortaz, Leioarako arazo larria dela eta Gobernu Taldeak oraingoz irtenbiderik ez diola eman eta aurrekontu honek ere ez diola arazo horri irtenbiderik ematen.

Garraio publikoaren arazoari dagokionez, adierazi du oraindik ere arazo hori hor dagoela, datetan zehaztu gabe jarraitzen duen tranbia-proiektuaren behin betiko ebazpenaren zain daudela eta hori ere larria iruditzen zaiela, baina larria dela, halaber, Gobernu Taldeak urtez urte irtenbiderik ez ematea udalerrriak dituen komunikazio eta mugikortasun arazoei; autobus-linea berari eutsi zaio duela urte dezentez geroztik, ez dago arazoa bere osotasunean hartuta egindako azterketarik.

Zenbait auzotako aparkalekuei dagokionez, hala nola, Pinuetako aparkalekuak, auzoaren zati baterako laster ekingo zaion jarduera bat dago aurreikusita, baina auzoaren beste zati batek irtenbiderik gabe jarraitzen du; nolahi ere, aitortzen dute horretan saiakera egin izan dela, baina uste dute gai hori ez dela alde batera utzi behar.

Beste proiektu batzuei dagokionez, hala nola, udaletxea berritzea –hori beharrezkotzat jotzen baitute-, edota Udaltzaingoaren egoitza berritzea, begi-bistakoa baita dagoen udaltzain-dotaziorako ez dela nahikoa, uste dute herritarrentzako zerbitzuak direla horiek ere eta horien berrikuntza eta hobekuntza ere geldituta dagoela.

Kiroldegi berriari dagokionez, adierazi du proiektu bat izan zela baina une honetan geldituta dagoela, prentsan iragarri dela kiroldegi berrirako partida bat badagoela, baina ez dela inolako informazio batzordetan zehaztu zertan datzan; halaber, ez da azaldu non egingo den; teoriarik 2006. urtean eraiki behar den ekipamendu bat da, eta ez daki edo ez da esan nahi non ezarriko den, hori ez zaie batere serioa iruditzen eta ez zaie iruditzen udalerrirako arazo garrantzitsua den gai bat jorrazteko era egokia.

Landide Hastapeneko ikastegi berriaz, adierazi du gai honetan ere badagoela azterketa bat hainbat urtetan alde batera utzita egon dena; Gobernu Taldeak konpontzen ez dituen hainbat arazoren adibide dira horiek.

Adierazi du bere taldeak, osoko zuzenketaren justifikazioan, azaldu duela Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak osatutako gobernu taldeak akidura helarazten duela, gobernu taldea akituta ikusten dute, indarrrik gabea, Leioa erreferentziazko udalerrri bilakatzeko ilusio falta duela eta giro hori transmititu egiten duela, eta penaz esaten duela izan ere horrela ez izatea nahiko lukete, baina bistan denez Leioa erreferentziazko udalerrri bilakatzeko indar, gogo eta ilusio falta hori helarazi egiten dela. Alde horretatik, 2006. urterako aurrekontuak ilusio eta indar falta hori islatzen du.

Bere taldeak egiten duen justifikazioaren beste atal batek bi gai hauek ditu aipagai: Udalbiltzarako aurrekontu-sailari eutsi egiten zaiola, eta Gobernu Taldeak ezezkoa eman diola 2005. urtean udal kale-izendegia aldatzea jorrazteari; kale-izendegi horrek une honetan terroristen hainbat izen hartzen dituela dio, hau da, ETA erakunde terroristako hainbat kideren izenak; Gobernu Taldeak uko egin dio izen horiek aldatzeari edo aldatzea proposatzeari, eta gobernu talde horrek berak Udalbiltzarako aurrekontu-sailari eusten jarraitzen du. Esan du bere taldearen ustetan Udalbiltza Euskal Herrirako haustura eta banaketa proiektu bat dela eta, bistan denez, urtez urte aurrekontu-sailean horri eustek ez zaiela iruditzen herritarren interesari erantzuten dionik.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Azkenik, oposizioko talde politikoez duten baliabide-falta etengabea aipatu nahi du bere taldeak; bistan denez uste dute Gobernu Taldeak denbora pasatzen utzi duela. Adierazi du Bozeramaileen Batzordeak apirilean egin zuen bilkura batean gaia jorratu zela, alegia, oposizioko talde politikoez dituzten baliabideen hainbat alderdi hobetzeko proposamen bat aurkeztu behar zirela talde politikoei, baina hobekuntza horien berri gehiagorik ez dela izan duela oso berriki arte, eta zehazki atzo arte, atzo jakinarazi baitzitzaien 2006. urtean ahaleginen bat egingo dela hobekuntza hori benetan gerta dadin. Hobetzeko ahalegin horren duen alderdi positiboa balioesten dute, baina uste dute hala ere ez duela oposizioko taldeen funtsezko arazoa konponduko. Hori balioetsita ere, uste dute oposizioko taldeek bitarteko egokirik gabe jarraitzen dutela, eta zalantzarik gabe hori da bermerik hoberena Gobernu Taldeak bere gobernu lanaren kontrol txikiagoa izan dezan.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, uste dute Aurrekontu-proiektua itzuli egin behar dela, berriz egin behar dela, berriz planteatu, eta horrexegatik aurkezten dute EAJ eta EAren Gobernu Taldeak aurkeztutako aurrekonturako osoko zuzenketa hau.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du bere taldeak balioetsi egiten duela Alderdi Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketa, eta abstenitu egingo zirela iragartzen zuela baina mahairatu dituzten hainbat gauzarekin bat datoze eta azken batean zatika zuzendu dituztela, eta bozketaren azken zatian zuzendu gabeko atalari dagokionez Alderdi Popularrarekin bat datozen zenbait arrazoi azalduko dituztela, baina esan du bere taldearen ikuspuntutik arazo bat dagoela, batez ere Alderdi Popularrak aurkeztutako zuzenketetan, eta arazo hori finantzaketaren gaia dela, izan ere kontraesana dago eta zaila iruditzen zaie hori konpontzea, batez ere, gehiago gastatzea proposatzen den zatian gutxiago biltzea proposatzen da, eta hori ez da ongi ezkontzen; hortaz, hortik abiatuta, zail egiten zaie ildo horretan aurrera egitea. Ados dauden zatiari dagokionez, gai-zerrendako gai honen hurrengo atalean, zuzentzen dituzten zatiak azalduko dituzte, eta gero, zuzendu gabeko zatiarekiko taldeak duen jarrera azalduko dute.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Esan du gehiegi sakontzeko asmorik ez badu ere, izan ere ez du uste askotarako balio duenik, uste duela jarrerak jakinak direla dagoeneko, eta ez du uste aurrekontuari galtzeta bati bezala buelta eman ez gero ere Alderdi Popularrak baiezkotzea emango lukeenik, baina gero mahairatuko diren zatikako zuzenketak finantzatzeko neurriak nondik nora doazen aztertzen hasi gabe, atentzioa ematen duela orain dela gutxi tasei buruz hitz egiten aritu ondoren -zehazki orain dela hilabete bat- orain idazpen horiek zergak edo tasak handituz finantzatzea proposatzeak. Horri dagokionez, adierazi du pentsatzen duela erantzungo zaiola horren bitartez hobeto kudeatu nahi dela, eta jende guztiak ordaintzea nahi dela etab., baina bere iritziz erabateko kontraesana da. Argitu du sakon aztertu gabe esan duela, baina gutxienez Aurrekontuaren egitura-ardatz gisa balio izan dezan dela.

Adierazi du Alderdi Popularrak idatzi duena aztertzen badu eta, halaber, gero PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak azaldu duena aztertzen badu -idatzita dagoen gauza berbera dela adierazi du- ulertzen duela osoko zuzenketa bat aurkez daitekeela Gobernu Batzordeak ez duelako aurretiaz inolako kontsulta egiteko borondaterik erakutsi; eta ildo horretan esan du hori arrazoi bat baldin bada ongi mahairatuta dagoela.

Esan du ulertzen duela Gobernu Taldea oso nekatuta dagoelako mahairatu zutela eta, egia esateko, oso nekatuta daudela urtearen sasoi honetan, orain astebeteko oporrak hartzea egokitzen zaiela eta segur aski urtarilean ez direla hain nekatuta egongo, izan ere alkate jaunak aurten egutegiko soilik hamabi egun hartu ditu opor, eta berak hitzarmenaren arabera dituzten hogeita lau egunetatik hamaika hartu dituela, eta, hortaz,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

zegozkien egun guztiak hartu izan balituzte beharbada ez liratekeela hain nekatuta egongo. Horri dagokionez, esan du osoko zuzenketa aurkezteko arrazoia hori baldin bada, Gobernua nekatuta dagoela, ba beharbada osoko zuzenketa aurkezteko arrazoi bat dela. Era berean, adierazi du Udalbiltza osoko zuzenketa aurkezteko arrazoia baldin bada, kontuan hartuta ematen zaion diru-kopurua oso txikia dela, bada hori ere osoko zuzenketa aurkezteko arrazoi bat izango dela, eta osoko zuzenketa aurkezteko arrazoia herriak jasaten dituen egitura-arazo larriak baldin badira –PPk kasu honetan honako hauek sartzen ditu: La Avanzada, garraio publikoa, zenbait auzotako aparkaleku-falta, udaletxearen berrikuntza, kiroldegi berriaren proiektua, Pinosolokoarena eta lanbide hastapeneko zentroarena-, bada hain zuzen ere gero PPren proposamenenak aztertzen baldin badira lanbide hastapeneko zentroak ez duela diru-ekarpenik jasotzen PPren proposamenetan, kiroldegiaren proiektu berriak ere ez, eta udaletxea berritzeari, aparkaleku-faltari, garraioaren arazoari eta La Avanzadaren arazoari dagokienez PPren bozeramaileak zuzenketetan mahairatzen duena azterketa gehiago egitea dela, ez daki zenbateko kopurura iristen diren baina bi milioi eta erdi inguru izango lirateke, eta horrekin justifikatzen dute osoko zuzenketa.

Adierazi du Alderdi Popularrak mahairatzen dituen irtenbideak azterketak direla, beharbada horrek esan nahi du Alderdi Popularrak azterketak egiteko udal aurrekontu bat behar duela, baina esan du Leioako EAJ alderdiak, eta bere iritzian EA alderdiak ere bai, oso argi dutela nolako herria nahi duten, eta hortaz, PPk oso argi ez baldin badauka, azter dezala, baina adierazi du beraien ez dutela aztertu beharrik, badakitela nolako herria nahi duten.

Horretaz gain, gaineratu du arazo zehatz hauetarako badaudela aurrekontu-sailak Aurrekontuan, eta Aurrekontuak, 2005. urtean biltzeko asmoa den diruarekin, eta azken batean zenbait joera ikusten dira jada, baieztatuko dela soberakinen ekitaldia edukitzean zeintzuk diren egingo diren proiektuak, lanbide hastapeneko zentroaren eraikuntza, izan ere proiektua, ez azterketa, aginduta dago jada.

Ondoren, adierazi du Aurrekontua aztertzen bada badirela bi sail asko hazten direnak, alegia, eraikuntzetako inbertsioak eta kirol instalazioetan egiten diren inbertsioak. Zergatik? Datozen bi urteotarako inbertsio handiak bideratzen ari direlako aurtengo aurrekontu arruntarekin eta soberakinekin. Lanbide Hastapeneko Zentrorako proiektua aginduta dago jada; kiroldegi berrirako proiektua asko hazi da 2006ko aurrekontuan, egiteko, eta ez azterketa egiteko. Udaletxea berritzeari buruz, adierazi du dagoeneko Hirigintza Batzordean aurreratu zuela, baina 2006. urtean egia bihurtuko dela Errekaldeko lonjak erabiltzea bulego tekniko instalatu ahal izateko, hartara udaletxea handitu ahal izateko, Udaltzaingo barne, eta horretarako badago sail bat Aurrekontuan. Pinuetari buruz esan du Plan Berezia kudeaketa-fasean dagoela eta horrek emango duela aparkalekua egiteko aukera, beraz ez dela azterketarik behar.

Garraio publikoaren arazoari eta La Avanzadaren arazoari dagokienez, 180.000 euro daude eta 240.000 euro bilakatuko dira 2006ko Aurrekontuan azterketak egiteko, hau da, Alderdi Popularraren proposamena azterketak egitea baldin bada, 240.000 euro daude Aurrekontuan azterketak egiteko, eta horrek aise gainditzen du Alderdi Popularrak duen azterketa behar hori; hortaz, horiek osoko zuzenketa aurkezteko arrazoiak baldin badira, utzi beharko diotela entzuten eta ulertzen baina gaia hortxe gelditzen dela.

Bere txanda bukatzeko, adierazi du ez dela bigarren erantzunik izango; esan du hori dioela ez pentsatzeko isilik gelditzen denak ontzat ematen duela; berak beti esan du isiltzen dena besterik gabe isildu egiten dela, eta hortaz errepikatu du behin hitz egingo duela eta ez duela errepikatuko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi

du:

Adierazi du argitu nahiko lukeela gauza bat dela nekatuta egotea eta beste bat ilusiorik ez izatea edo ilusiorik ez helaraztea; hortaz, Eneko Arruebarrenak esandakoa berretsiz, adierazi du bera leher eginda dagoela, hori ez dela merezimendu bat, baina esan du berari ilusiorik ez zaiola falta eta gainera hori erakusten saiatzen dela.

Alde horretatik, adierazi du berak ilusioa ikusten zuela Leioan eta Leioan bizi den jendearengan, eta jendea pozik dagoela uste du, eta Leioa une onean dagoela. Esan du orain dela egun gutxi azterketa bat egiteko agindu zuela, eta datu harrigarria dela Leioan azkeneko bi urteetan 534 jarduera berri ezarri direla; horrek esan nahi du Leioan badagoela gauzak egiteko ilusioa. Berari arlo anitzetan handitzen ari den udalerrria iruditzen zaio, alegia, hiri-kontuei, esparru publikoei, ekipamenduei, ilusioari, hiriko bizitzari, kirol jarduerari, musika eta kultur jarduerari eta abarrei dagokienez handitzen ari dela. Hortaz, ilusioa ikusten du Leioan, eta PPren bozeramaileak ilusiorik ikusten ez badu, uste du normala dela ez ikustea eta ulertzen du.

Errepikatu du benetan nahiko nekatuta dagoela, baina ilusioa izaten jarraitzen duela, eta nekatuta dagoela hain zuzen ere aurten dezente lan egin duelako.

Adierazi du ez duela berriz ere Eneko Arruebarrenak aurrekontuaren proiektuari buruz esandako gauzen inguruan jardungo, horrekin bat datorrela, eta esan du tranbia ez dela Leioako Udalaren inbertsioa, jendea ez engainatzeko esan du; gainera, PPK ez du inbertsio-partidarik aurreikusten La Avanzada estaltzeko edo tranbiarako, izan ere funtsean La Avanzada estaltzea foru errepidearen gainean egin behar da eta hori Aldundiaren eskumena da; eta tranbia, berriz, Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa da. Azaldu du gai honetan lanean ari direla helburuak lortzeko.

Pinuetaren gaiari dagokionez, adierazi du ikusi duena PPren proposamenak izan direla eta ez direla batere positiboak izan; eta Udalbiltzaren gaiari dagokionez, adierazi du berriro diola aurten ere ahalmenu egingo dutela, joan den urtean Baionako katedralean Leioako Orkestra Gaztearen eta Kantikak Korala eta San Juan Bautista koralaren kontzertua egiteko aukera eman zuten bezala, aurten, 2006. urtean, aurreikustea Baionako kontserbatorioko ikasleak Leioara etortzea, otsailean, kontzertu bikaina ematera, nahiz eta kontrakoan arriskutsutzat jo daitekeen formulazio politiko handien arabera.

Baliabide-faltari dagokionez, deitoratu egiten du esatea eta errespetu apur bat eskatzen du, izan ere Alderdi Popularra Barakaldoko Udaleko partaidea da eta han, EAJko zinegotziei, ez zaie inolako aukerarik eman EUDELen prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, eta hori dela eta, EAJko zinegotziek ezin izan dute EUDELe alkate eta zinegotzientzat eskainitako prestakuntza-ikastaroetan Barakaldoko udal finantzaketaren bidez parte hartu. Eta udal honetan, PPko zinegotziek diru asko xahutu dute ikastaroetan eta gero ez dira ikastaro horietara joan; horregatik, errespetu apur bat eskatu du, izan ere, hotsandiko mintzaldi egitea ongi dago baina hemen baliabide-falta dagoela esatea bakoitzak nola begiratzen duen da, izan ere badira hainbat gauza lotsagabekeriaren mugan daudenak, eta sentitzen duen moduan esaten duela dio, nahiz eta bakoitzak edonoren jarrerari buruzko balio-judizioak emateko eskubidea duen, baina uste du egiten diren balio-judizioekin kontu pixka bat izan behar dela.

Esan du edozein modutara aurrekontu hau asmo handikoa dela eta hazkundearen ildoari jarraitzen diola; aurrekontu soziala da, proposamenak era positiboan sartzeko ahalegina egin dute, aurreko urteetan egin den moduan. Halaber, arlo sozialean Alderdi Sozialistaren proposamenak jaso dira, izan ere uste dute ildo horretan aurrekontuan sartzeko unea dela, une egokia dela uste izan dute eta ahalegin hori egin dute; hortaz,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

gizarte-arloan egin den hazkundera -hau da, larrialdiko laguntza, hirugarren adinekoentzako arreta, etxez etxeko laguntza, berdintasun plana- euskarri garrantzitsua jaso du. Leioaren garapen iraunkorrari dagokionez, birziklatzeko gai guztiak, zaborrak, paperaren tratamenduak, iraunkortasunak oro har, bai 4. atalean baita 6.ean ere, gehi Eskola Agenda 21, uste du horrek guztiak kalitate berriak dakartzala; horretaz gain, euskalduntzeko ahalegina egin da, izan ere Euskaltegiak bultzada berezia jaso du, eta, aurrekontu honekin guztiarekin eta horrekin batera doan kudeaketarekin, aukera ematen du Leioak ilusioa izaten jarrai dezan; berak badauka, eta bere ustez Leioako herritarrek ere bai.

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du PPK dagoeneko aipatu dituela hainbat proiektu handi eta tranbiari eta La Avanzadari buruzko hainbat hutsune, eta Eneko Arruebarrenak dagoeneko erantzun duenaz, ez duela merezi denbora gehiago horretan ematea. Tranbiaren proiektua ez da Udalarri dagokion proiektu bat, eta La Avanzadari dagokionez, gaia eztabaidatuta dago jada eta ez da horri buruz bueltaka ibiltzeko momentua.

Adierazi du berak besterik gabe totum revolutum bat botatzeko gogoia ikusi duela, puzteko eta denen denbora xahutzeko.

PPren bozeramaileak aipatu duen erakustazokaren proiektuari dagokionez, ez du uste beharrezkoa denik, izan ere nahikoa da egiten den moduan, urtean behin egiteko, joan den igandean egin den moduan. Halaber, esan du Planetariumaren proiektuak etab. jarraitasun logika batetik erabat aldentzen direla, hortaz besterik gabe zarata egiteagatik hitz egitea dela iruditzen zaio..

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du azaldu diren hainbat gairi erantzun nahi diela. Esan du ulertzen dutela, lehenik eta behin, benetan Leioa handitzen ari dela, hirigintza-mailan handitzen ari da, arlo askotan ari da handitzen, eta nahiz eta Gobernu Taldea den bezalakoa izan handitzen ari da, hau da, nahiz eta EAJ eta EAK osatutako gobernu taldea den bezalakoa izan arren ari da handitzen. Adierazi du ilusiorik ez dutela ikusten esan dutela, baina kontua ez dela Leioan eta leioarregan ilusiorik ez ikustea, baizik eta ilusio-falta Gobernu Taldean ikusten dutela, eta hori ezberdina dela.

Gobernu Taldeak Leioa zein herri-mota izatea nahi duen badaukiela, horri buruz uste du Gobernu Taldeak ez dakiela edo ez dakiela oso zehatz, behintzat, nolako hiri-eredua edo Leioa nahi duen, izan ere udalerraren berezko hazkunde-erritmoan doa.

Udalbiltzari dagokionez, adierazi du berriz ere gobernu kanpoko erakunde modukoaz mozorrotzen dela, beste kontserbatorio batzuekin lankidetzan aritzeko dela esanez. Baina Udalbiltzarako sail hori, Gobernu Taldeak kontserbatorioa erabiltzen du sotilki sail hori garatzeko, baina sail horren atzean Udalbiltzaren proiektua dago, alderdi nazionalistek lortu nahi duten zazpi lurraldeko Euskal Herria eraikitzeko proiektua; hori da sail horren atzean dagoen proiektua, esate baterako bi milioi etab. izan daiteke, baina garrantzitsuena ez da diru-zenbatekoa, kasu honetan 23.000 euro baitira, garrantzitsuena proiektu horren atzean dagoena da, eta, kasu honetan, banaketa-proiektu bat dela uste dute, azken batean lortu nahi dutena Euskadik, Espainiak bere osotasunean demokratikoki emandako erakundeak dinamizatzea da, hori da Udalbiltzaren azken helburua eta, jakina, Gobernu Taldeak helburu horretarako aurrekontu-sail bat edukitzea ez du onartuko bere taldeak, eta sail hori sartzen den urte bakoitzean salatuko dute.

Aurrekontu-sail asko azterketetara bideratzen dituztela leporatzen zaiela eta, adierazi du arazo bati ekiteko, jorratzeko modua dela, ez baitute ikusten benetan ezer egin denik La Avanzadaren gaian, ezer egin denik garraioaren gaian, eta ezer egin denik hainbat



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eta hainbat gauzatan; hortaz, oposizioko talde batek arazoetako batzuk jorrazteko azterketak mahairatzea, gutxienez, beraien ustez ekarpen positiboa da.

Tranbiaren gaiaz, garraio publikoaren arazoari lotuta, adierazi du inoiz ez dutela esan tranbia Leioako Udalak egin behar duena, Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna baita hori, eta ez duten inor engainatu nahi; aldiz, Leioako jendea engainatzea dela uste dute hauteskunde-aldiaren aurre-aurretik propaganda batean boletín bat atertzea eta hor adieraztea tranbiaren proiektuari 2006. urtean ekingo zaiola eta 2008. urterako errealitatea izango dela; hori jendea engainatzea da, hori itxaropen faltsuak sortzea da, ikusten baita denboran atzeratzen ari den proiektu bat dela eta gaur egun ez baitakite ziur noiz izango den errealitate; hori jendea engainatzea da.

Amaitzeko, adierazi du oposizioko taldeen baliabideen gaian nahiko era dohakabean sartu direla iruditzen zaiola, izan ere dohakabetzat jotzen dute Leioarekin zerikusirik ez duten beste udaletako adibideak ekartzea. Esan du beraiak Leioaren egoeraz hitz egin dutela, eta erantzuna Leioaren egoerari ematea nahi dutela, izan ere zorigaiztokoa iruditzen zaie balizko beste adibide batzuetan sartzea, zorigaiztoko irizten diote, eta are zorigaiztokoagoa da aipatzea ikastaro batzuetara joateko diru-laguntza eman zaiela eta ez direla ikastaroetara joan; beraien iritzian horrek gobernu talde honetako kideetako bakoitzaren alderdi pertsonalean sartzea esan nahi du, zoritxarrez ez baitute nahikoa denbora izan EUDELen ikastaroetara joateko, nahiz eta beste batzuetan joan izan diren; bakoitzaren esparru pertsonalean sartzea dela iruditzen zaie, ez dela doako alderdi bat alderdi pertsonal bat baizik; hortaz, oso dohakabea iruditzen zaie eta ez datoz inola ere bat horrekin. Adierazi du alderdi horri dagokionez bere kide Arturo Aldecoa jaunak zerbait argitu nahi duela.

PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du hainbat aipamen direla eta, uste baitu alkate jaunak norbaiten aipamenak egin dituela, horregatik hitz egin behar duela. Esan du Eguberriak direnez leunki hitz egingo duela, gainera politikoki ere askoz ere zentzuzkoagoa iruditzen baitzaio horrela egitea. Horri buruz, esan du ikastaroak egiten direnean, bilkura-aretoko edonork edo beste edozein pertsonak ikastaroa baino bi hilabete lehenago data libre izan dezaketela eta izena eman dezaketela eta gero batzuetan arazorik ez dela sortzen baina beste batzuetan egunean bertan egoera konplikatzen dela eta ezin dela ikastarora joan. Esan du bestetan ezeztatu ahal izan duela baina alkate jaunak aipatu duen horretan ezin izan zuela ezeztatu.

Adierazi du ez duela non zegoen azalduko, nahiz eta Administraziooko gai batekin zerikusia zuen, hain zuzen Batzar Orokorrekin eta erakunde batekin; han egotea egokitu zitzaion eta ezin izan zion ihes egin, nahiz eta ikastaroan askoz ere gusturago egongo zatekeen, oso interesgarria iruditzen baitzitzaion. Horri buruz, esan du EUDEL zorientzen duela ikastaro horiek egiteagatik, oso interesgarriak iruditzen zaizkiolako, baina batek ezin du beti nahi duena egin, eta ez du dena aldatzeko denborarik; hori dela eta, bere ustez aipamen hori, berari buruzkoa nahiz areto honetako bere alderdiko zein beste alderdi bateko kide bati buruzkoa izan, ezeztatu egin beharko litzatekeela, izan ere kontuan izan behar da hirurogei egunen bururako zerbait antolatzen denean, nolabait esatearren gutxi gorabehera egutegia asko alda daitekeela, nahiz eta zeuk ezin izan ikastaroen egunak aldatu.

Hizketarako bere txanda amaitzeko, esan du mesedez eskatzen duela horrelako argudioak ez erabiltzeko, ez baita ez egokia ez bidezkoa, eta gainera, apur bat pentsatzen baldin badu, konturatuko da hirurogei eguneko aurrerapenaz deituriko edozein jardueratan izen-emandakoetatik, batzuetan ehunekoren bat berak ehuneko 10etik 20ra kalkulatzeko du-beren egutegia dela-eta ezin izaten dela joan eta uko egiteko aukerarik ere ez dutela izaten;



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

izan ere, joaterik ez dutela hamar egun lehenago baldin badakite, ez dago inolako arazorik partaidetza ezeztatzeko, baina egun horretan bertan jakiten baldin badute, ezinezkoa da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Udalbiltzaren gaia hartuta, adierazi du Baionako katedralera kontzertu bat egitera joatea Euskadiren eraikuntza nazionala dela esatea ez dela egokia, Valladolidera joatea eraikuntza nazionala ez den bezalaxe, edo Radio Televisión Española kontzertu bat egitea ere eraikuntza nazionala ez den bezalaxe; aldiz, badirudi Baionara joatea eraikuntza nazionala dela. Adierazi du berari komentarioek egiten diotela min, behin baino gehiagotan esan du, eta damu du errepikatzea, izan ere oraindik oraindik ere Talde Popularraren barkamenaren zain dago, hain zuzen ere berariaz bera salatu egin zuten gaizkilea izateaz, kontu horretan diru publikoak bidegabe erabiltzeaz, eta gainera gai horretan azaldu egin zion zehazki, PPren bozeramaileari, ekitaldi hartan zertan gastatu zen eta zertan ez zen gastatu, eta hala eta guztiz ere, gaizkile+ izateaz salatu zuten, eta hori larriagoa da, eraikuntza nazionala baino dezente larriagoa.

Esan du jende guztiak egiten dituela gauzak zuzenak eta akatsak, berak aitortzen du maiz erratzen dela, ilusio nahikoa du baina maiz erratzen da; denek dituzte proiektuak baina ez dira beti finkatzen; esate baterako, kultura guneari dagokionez, esan du Alderdi Popularrari esker aurten Leioara Kultura gunea hain azpiegitura bikaina- ordaintzeko etorri behar zuten 185.000.000 pezetan erantzukizunaren zati alikuota bat beste modu batera ordaindu behar izan dela eta hori bakoitzaren kudeaketaren argi-ilunen zati dela.

Adierazi du EUDELen prestakuntza-ikastaroei buruz berak egin dituen oharren bitartez ez zuela inor mindu edo esparru pertsonaletan sartu nahi; berak ulertzen du egun batean pertsona batek agenda-arazo bat izan dezakeela, baina Leioako Alderdi Popularreko zinegotzien asistentzia-egoera ateratzen baldin bada beharbada beldurgarri samarra dela, izan ere diru publikoaz ari dira hitz egiten; gainera, hain zuzen ere, haren taldeko zinegotziren batek errieta egin zion, eskuzabalegia zela esanez, eta horri, berak erantzun zion prestakuntzako gaietan ez zela urri ibili beharrik, eta nolana ere nahiz izanez gero zinegotzi guztien asistentzia-egoera erakuts zezaketela; izan ere, funtzionario bat ikastaro batera bidaltzen denean, zinegotzi hori ikastarora joan den edo ez kontrolatu egiten da, hain zuzen ere diru publikoa erabiltzen delako. Horri dagokionez, esan du nahi izanez gero ikastaroan izena emanda zeuden zinegotzi guztien asistentzia-fitxa erakuts daitekeela, zinegotzi bakoitzarengatik zenbat diru xahutu den adierazita; berak uste du nahiko irekia izan daitekeela gai hauetan laguntzeko, baina gainera ez diezazkiotela koloreak ateraraz, muga batzuk badaudela uste baitu. Adierazi du prestakuntza-gastuetan inguruan ohikoa izan dena baino ahalegin handiagoa egin dela eta gero, asistentzia-egoera ikusten duenean, ez soilik Leioarena baizik eta udalerrri guztietakoa, EUDELeke lehendakari denez bere erantzukizuna baita, ikastaro bikainak direla ikusirik, min egiten du diru publikoa gastatzeko egindako ahalegin hori ez dela baliatzen, eta hori esatea nahitaezkoa dela uste du; hortaz, ez zaio leporatu behar talde politikoen gaia laguntzen ez duenik.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du Udalbiltzaren gaiaren inguruan hor dagoela Kontuen Epaitegia, horrek behar bezala aztertu duela gai hau. Horri dagokionez, esan du badirela hainbat gai behin eta berriz azaltzen direnak, eta Gobernu Taldeak behin eta berriz erabiltzen duela bere taldeak ateratzen dituen argudioei aurre egiteko; izan ere, gai bat da Udalbiltzari buruz zegokion unean egin zuten salaketa, uste izan zutelako une hartan bere taldearen ardura zela gai hura publikoki salatzea, eta jakina, gaia berriz aterako lukete gaur egun horrela



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ikusiko balute eta horrela ulertuko balute. Une hartan ikusi zuten Aurrekontua mahairatuta zegoen moduan egonda, aurrekontu-sailetan sail hori zegoela horretara bideratuta eta salaketa hori egin zuten, partida hori zela ulertzen zutelako; hortaz, behin eta berriz gai hori ateratzea, behin eta berriro erantzun gisa erabiltzea bat ez datozen gai baterako, hala nola, Udalbiltzaren gairako, izan ere legearen ikuspuntutik ez datoz bat Udalbiltzarekin, horren aurka egingo dute ahal duten guztietan, eta uste dute hori egiteko legez eskubide osoa dutela, eta salaketa horrekin behin eta berriz erantzuteak gai honetan argudiorik ez dutela erakusten du apur bat, baita Kultur Leioaren finantzaketaren gaian ere; izan ere, orain dela bi urte, gai hau 2003ko urrian, orduan uste du atera zela Kultur Leioaren finantzaketaren gaia azkeneko aldiz, talde politiko honi alkate jaunak eskerrak eman zizkion, eta zehazki bere kide Arturo Aldecoari, finantzaketa egiteko egiten ari ziren kudeaketengatik, finantzaketa osatzeko edo aurreikusia izan zen moduan izateko, eta ahalegin hori egiten jarraitu da. Horrek erakusten du ados ez dauden politika egiteko modu bat dela, eta orain gai hori behin eta berriz leporatzea, izan ere aurreko osoko bilkuran ere egin zitzairen, bitan gaia jaurti baitzitzairen mahairatzen zuten galderaren bati erantzuteko, eta orain berriz ere Kultur Leioaren finantzaketaren gaia mahairatzen zaie, lehenagotik publikoki eskerrak eman ondoren, bilkura honetan hain zuzen ere, egiten ari ziren lanarengatik, eta uste du hna berdina izan dela uneoro, ahalegina, bere talde politikoaren aldetik behintzat, berdina izan dela. Uste dute Udaleko udal talde politikoak izan ditzakeen aukeretatik kanpo dagoen gai bat dela.

Bere mintzaldia amaitzeko, adierazi du deitoratu egiten duela EUDELe antolatutako ikastaroetara joateari zergatik utzi dioten edo ez salaketaren gaia behin eta berriz aipatzea, izan ere uste dute akatsa dela talde politiko honetako kideen gai pertsonaletan sartzeari, eta, zalantzarik gabe, uste dute ez dela inola ere bidezkoa zinegotzi hauek beste hainbat esparrutan egin dezaketen lanarekiko, horrek askotan eragotzi egin baitiezaieke beste erakundeek antolatzen dituzten ikastaro interesgarrietara joatea.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du, nolana ere den, berak beti aitortu duela Leioako Alderdi Popularraren borondate ona, eta hortaz, bera ez dela aurreko osoko bilkuran PPren bozeramaileak egin zuen baieztapena egitera iritsiko, alegia, alkateak ez duela borondaterik; hori ez du sekula esango Leioako Alderdi Popularrak, izan ere uste du borondatea badutela eta kudeaketak egiten dituztela; gainera, berak Arturo Aldecoari Gobernuaren ordezkariordetzan elkarrekin egon baitira- beti eskertu dizkio kudeaketak, eta baita Susana Gonzálezi ere, Alderdi Sozialistaren izenean egindako kudeaketengatik. Baina emaitzak onak izan ez direnez, uste du emaitzen erantzukizunaren zati alikuota ere banatu egin beharko dela, besterik gabe hori esaten du, borondaterik ez dutela esateko bezain bidegabea izan gabe; hori ez du sekula esango.

Udalbiltzaren gaiari dagokionez, PPren bozeramaileari adierazi dio ez duela ongi gogoratzen, izan ere gai honi buruz zerbait larria esan zuen. Azaldu du ez zela aurrekontuen eztabaida batean izan, baizik eta prentsa-ohar batean egin zutela; hori argitara eman zenean bera kanpoan zela. Argitaratutako prentsa-ohar horretan, Leioako PPren bozeramaileak baieztatu zuen Leioako Udalak legez kanpoko erakunde bati transferentzia egin ziola, eta hori gezurra da. Eta bigarrena, aurrekontu-sailik gabe egin zuela, eta hori ere gezurra da. Eta hirugarrena, ordainketa bat izan zela, eta hori ere gezurra da, izan ere ekitaldi horretan ordainketa zero izan zen, erakunde horri ez baitzitzaion inolako transferentziarik egin; eta adierazpenetan iradoki egiten zuen funts publikoak bidegabe erabili zirela, eta hori gezurra da. Adierazi du hori guztia salaketa larria dela, eta delitua egiteaz salatzen zutela, ez akats



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

politiko batengatik baizik eta delitua egiteagatik. Eta hori dezente okerragoa da, eta gainera gezurra zenez beste egun batean ere berriz gogoraziko dio. Bere mintzaldia amaitzeko, adierazi du bera ez zela gaizkile bat, erabakietan huts egin baldin badezake ere.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko PPK aurkeztu duen osoko zuzenketa.

PP TALDEAK AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAREN BOZKETA

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko lau boto**, PPKo lau zinegotzianak; **kontrako hamahiru boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; **lau abstentzio ere egon dira**, PSE-EE-PSOeko zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak **ez du onartu** PP taldeak 2006. urterako Aurrekontu Nagusi Finkatuari aurkeztu dion osoko zuzenketa.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du jarraian, aurretiaz azaldu duen moduan, Alderdi Sozialistak zatizko berrogei zuzenketa aurkeztu dituela, Aurrekontu proiektuan Alderdi Sozialistaren aurreko urteetako proposamenak biltzeko asmoz, besteak beste. Hori Iñaki Goikoetxea Ogasun Batzordeko bozeramale eta buruak zehatz-mehatz azaldu duela azpimarratu du.

Alderdi Sozialistak zatizko berrogei zuzenketa aurkeztu ditu. Adierazi duenez ahalegin handia egin dute eta hiru zatizko zuzenketa edo transakzio-zuzenketa daude. Horietako bat EHUrekin egindako hitzarmenari buruzkoa da, eta 4. kapitulua handitzea ekarriko luke: 6.010 euro egotea aurreikusitako zen eta 26.010 euro egongo liriteke, adierazitako finantzazio-moduaren bitartez. Beste bat Genero indarkeriaren kontrako kanpaina eta aurreko planari buruzkoa da, gastu orokorraren % 5eko finantzazioaz; hori guztiz hartuko litzateke Ikerketa, Azterlan eta Proiektuetatik eta, beraz, handituko egingo litzateke, Alderdi Sozialistak aipatutako moduan. Guztion aurrean adierazi behar da ekitaldi honetan La Avanzada errepidean soinu-eragina kontrolatzeko azterlanak eta alboko bideei buruzko azterlanak egiten jarraituko direla, egin dutela, egiten ari direla eta egingo dituztela, hazi den partida honen pentzura. Ikasleen errealitatea lantzen jarraituko dutela adierazi du, EHUko ikasleen alorrean dauden fluxuak eta migrazio-fenomenoa lantzen. Beren-beregi hartu dute konpromisoa azterlan horiek proposatu den transakzio hirukoitzaren ondorioz geratuko den aurrekontu-gordailuarekin egiteko.

Euren ustez, Alderdi Sozialistak egoki baderitzo, 30 eta 40 zenbakien bitarteko zuzenketak eta 12 eta 26. zuzenketak erabaki-proposamen honetan onartuko liriteke.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Gobernu Taldearen proposamenari jarraituz, adierazi du ez dakiela zuzenketa horiek orain berezita bozkatu behar diren eta gainerakoak bozketaren ondoren azaldu.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du nahi den bezala egingo dela. Berak nahiago du lehenengo eta behin transakzioa bozkatu, 13 eta 26. zuzenketak eta 30 eta 40 bitarteko zuzenketak kentzen badira.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Proposatutakoa onartzen zuela eta, nolahi ere azalduko zuela adierazi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Adierazi du, EHUri dagokionez, bere taldeak aurrekontuan gai horri buruz zerbait garrantzitsua sartu nahi zuela, diru gehiagorekin, hainbat arrazoi direla medio: ez soilik Leioa, askotan entzun izan zaien moduan, unibertsitate-hiri bat delako edo unibertsitate-hiri bat izan behar duelako, bistan da horrek dakartzan abantailekin izan ere, 27.000 ikasle edo ikasle gehiago izatea egunero joan-etorriak egiten hobea izango da herriarentzat bere garapenarentzat-, horretaz gain hobeto bizi behar da Leioan merkataritza garatzeko, zerbitzuak garatzeko, izan ere jende asko joaten da hor gora eta ez da udalerrira hurbiltzen edo hurbiltzen bada oso gutxitan egiten du. Baina, gainera, horretaz gain noizbait hizketan entzun zaie Kultur-en inguruan kezka dutela. Badakite zaila dela Unibertsitatea Kultur-era hurbiltzea, baina Kultur ezin da udalerrirako zama bilakatu; bizirik egon behar du, eta ez bizirik soilik jarduerak eta ekintzak egiten dituelako; alegia, bizitasun horrek finantzatzeko aukera eman behar dio, eta hori, Unibertsitateak, ezagutzen diren zailtasunekin, egiteko modu bat izan daiteke, eta, gainera, une honetan Unibertsitatea denek maite duten zerbait da.

Bilboko alkate Azkuna jaunak, joan den egunean, hitz garbi-garbiez eta munduko eskubide osoaz adierazi zuen campusaren zati handi bat Bilbora igarotzea nahi duela. Horrela esan du, eta Barakaldoko Udaleko ordezkari politikoek hori nahi dutela esan dute, eta eskubide osoz esaten dute, campusaren zati bat Barakaldora igarotzea nahi dutela, baina, bestalde, Bilboko Udalak dio Barakaldon dagoen campus-zatia Bilbora pasatzeko, hau da, denek nahi dute Unibertsitatea. Unibertsitatea hurbil egotea denok nahi baldin badute edo nahi baldin badugu, ordezkari publiko modura karguak betetzeko betebeharra dagoen udalerrietan egotea, ildo horretan lan egin beharko da. Hortaz, sail hori ildo horretan gauzak egiteko da, lankidetzeta hobetu nahi baitute.

Genero-indarkeriaren aurkako Kanpaina eta talka-planari dagokionez, begi bistakoa da Udalak gai horren inguruko kanpaina instituzional guztietan parte hartzen duela. Ez du esan nahi horrekin egiten ez duenik, baina zuzenketaren interesa da Udalak bere aurre hartzeko kanpaina izatea eta dagokion unean eta Batzordean, zuzenketa onetsitakoan, inguruko udalerrietan egiten direla ikusten duten beste jarduera batzuen proposamen zehatzen bat aurkeztea, oso garrantzitsuak izan daitezke, batik bat genero-indarkeriari aurrea hartzeari dagokionez.

Mahairatzen dituzten azterketei dagokienez, badago bat hainbat batzordetan aipatu dutena; La Avanzadaren alboetako bideetako ingurumen-eraginaren azterketa da. Adierazi du gogoan zuela Eneko Arruebarrenak duela denbora asko esan zuela hitzarmena sinatzen zenean bide batez esan du horri ezezko botoa eman ziotela, ez arrazoi horrengatik bai ordea beste batzuegatik-, orduan izango dela azterketa horiei ekiteko unea. Izan ere, La Avanzadak bere alboetako bideetan, hain zuzen ere tuneletan sartu aurre-aurretik eta atera aurre-aurretik, edo alderantziz, nondik etortzen den, izugarritzko soinu-eragina sortzen duela. Irtenbide bat aurkitu behar zaio, irtenbiderik baldin badago, eta legeari egokitzen zaion irtenbide bat izan behar du, izan ere, oraintxe bertan bururatzen zaizkien irtenbideetako batzuk nekez egokitzen zaizkie legeari edo gai horiek erregulatzen dituzten araei.

Beste alde batetik, unibertsitate-biztanleria mugikorrari dagokionez, Nortzuk dira eta zer nahi dute? Zer eman diezaiekegu hemen gera daitezen? Mahairatzen dituzten gainontzeko gaiak, inmigrazioa, auzoetako garraioa hobetzea, etab., azterketak dira, baina uste du balio praktikoa dutela, izan ere azterketa objektibotasunez eginda baldin badago eta bere ondorioak talde guztiek onartzen baldin badituzte, horrek adierazten du zertan lan egin dezaketen, edota zeintzuk dira Udalak hainbat arazori aurre egiteko dituen jarduera-bideak, eta horrengatik sartu dituzte.

Hortaz, berriro dio, beraienak baztertuko lituzkete 30 zuzenketatik aurrera eta gastuaren aldaketa onartuko luke aurrekoetan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Hitza hartu du azaltzeko transakzio zuzenketei dagokienez mahairatzen diren hiru zuzenketetatik hirurak osotasunean bozkatuko direla ulertzen dutela, izan ere bat positiboa izan daiteke, hau da, genero-indarkeriaren kontrako kanpaina eta talka-plan. Alde horretatik, prest egongo lirateke bere berezitasunean zuzenketa horren alde egiteko. Gainontzeko bi zuzenketak ez zaizkie aldaketa nahikoak iruditzen, hau da, EHUrekiko hitzarmenaren kontu-sailari 20.000 euro gehiago ematea. Beraiek Euskal Herriko Unibertsitatea hobetzeko aurrekontu-sail zehatz baterako aurkeztu zuten zuzenketa, unibertsitatearen campusa hobetzeko. Uste dute ez litzatekeela nahikoa izango eta Alderdi Sozialistak mahairatzen dituen azterketa Ikerketa, Azterketa eta Proiektuen sail honetan barne hartzea. Hori nahastea izango litzatekeela uste dute. Horretaz gain, mahairatzen diren azterketetan desadostasunak egon litezke ea alboetako bideei buruzko eragin-azterketa behar izango litzatekeen, azken batean udalerrian eragina duena La Avanzadaren bide zentrala baita.

Nolanahi ere den, Ikerketa, Azterketak eta Proiektuak kontu-saila 60.000 euroz handitzea proiektuak edo mahairatzen diren azterketak nahastea dela iruditzen zaio.

Batera bozkatzen baldin bada, nahiz eta genero-indarkeriari buruzko kanpainaren eta talka-planaren proposamenarekin ados dauden, bere taldea, printzipioz, abstenitu egingo litzateke.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du bakoitza bere aldetik bozka zitekeela, ez dagoela inolako eragozpenik.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du , bozketari dagokionez, beraiek ez zutela inolako eragozpenik zuzenketak bakoitza bere aldetik bozkatzeko, hartara zuzenketak duen babesa hobeto islaturik gelditzeko.

PPren bozeramaileak esan dituen gauzetako bati dagokionez, hain zuzen ere azterketak nahasi egiten direla, egia da, azterketa nahasi egin daiteke baldin eta alkate jaunak ez badu osoko bilkuran emandako hitza betetzen; eta alkate jaunak argi esan du azterketak egin egingo direla, eta kontuan hartuta esaten den esaera, alegia, betetzen badu bete dezala, eta bestela eska dakiola, bada eskatu egingo diogu, jakina, bere hitza betetzen ez baldin badu.

La Avanzadaren alboetako bideen ingurumen-eraginaren azterketari dagokionez, arazoa herria zeharkatzen duen zanga da, hori horrela da, baina horretaz gain arazoa ere bada zangan sartu aurretik eta zangatik atera ondotik inguruko zirkulazioak sortzen duen zarata; eta udalerraren barnealderen konturako irtenbide bat ere aurki liteke, baina alboetako bideetan bilatu beharko dute irtenbidea, bide horiek, izenpetutako hitzarmenarengatik, jada udal eskumenekoak baitira edo izango baitira, hartara inguru horretako zarata saihestuko litzateke.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du lehenik genero-indarkeriaren aurkako kanpainari eta talka-planari buruzko zuzenketa bozkatuko dela. Zuzenketa hori 15.000 eurotan finkatuta dago.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO KANPAINA ETA AURREZ AURREKO PLANARI BURUZKO ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** EAJ-PNV eta EA taldeek aurkeztu duten Genero indarkeriaren kontrako kanpaina eta aurrez aurreko planari buruzko zuzenketa.

EHU HITZARMENARI BURUZKO ZUZENKETAREN (26.010,12 EUROKO PARTIDAN EZARRI DA) ETA IKERKETA, AZTERLAN ETA PROIEKTUEI BURUZKO ZUZENKETAREN (240.000 EUROTAN GERATUKO LITZATEKE) BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko hamazazpi boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak eta EAKo zinegotziarena; **lau abstentzio** ere egon dira, PPko zinegotzianak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak **onetsi egin ditu** EAJ-PNV eta EA taldeek aurkeztu dituzten EHU hitzarmenari buruzko zuzenketa eta Ikerketa, azterlan eta proiektuei buruzko zuzenketa.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Orain Alderdi Sozialistaren 1etik eta 29rako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatuko direla azaldu du, 13.a eta 26.a izan ezik, kendu egin baitira.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du gai honen hurrengo urratsean azalduko dituen arrazoiak direla eta Gobernu Taldeak aurkeztu duen Aurrekontu proiektuak, Alderdi Sozialistaren ikuspuntuaren arabera, hainbat alderditan zuzenketa behar duela.

Zuzenketak idazmahai guztien gainean daude, eta uste du joan den urtean aurkeztu zituzten zuzenketen kopia bat utzi behar zuela beharbada, batik bat ez daudenak ikusteko, izan ere gero horietaz hitz egingo du.

Laburbilduta, uste dute beharrezkoa da Udala Eskola Publikoaren informazioa hobetzen saia dadin, azken batean, bere erantzukizun zuzena da, hitzartutako zentroetan zeharkako erantzukizunen bat izan badezake ere. Uste dute, halaber, beharrezkoa dela emakumeari laguntza psikologikoa emateko aurrekontu-saila handitzea, nahiz eta aitortzen duten aurrekontuaren beste hainbat arlotako kontu-aitetan ere zenbatekoak handitu egin direla, ez dute ukatuko; gauza bera gertatu da Tokiko Agenda 21i dagokionez ere. Eskola Agenda 21ean ere hazkundera handia izan da, eta ezin da hori ahantzi, baina toki agendak dagoeneko bere batzordea ere baduela iruditzen zaie. Garrantzia nahikoa izatera iritsi da, diru-zenbateko egokiak erabili ahal izateko. Kanporako diru-laguntzetan ere hazi egin da zenbateko orokorra, baina murriztu egin da, zehazki idazpuru horretan; hori dela eta, bere taldearen nahia izango litzateke hazkunde eta murrizketa hori ez egitea eta aipatutako zenbatekoan uztea. Gauza bera gertatzen da Hezkuntzako jardunaldiei dagokienez; gero hitz egingo du gai horri buruz, alegia, hezkuntza, eta funtsean hezkuntza publikoa, izan ere horretan Udalak eskumen garrantzitsua du eta indar nahikoa eman behar dio. Adierazi du EHUrekiko hitzarmena pasa egiten duela, eta Eguberrietako kultur ekitaldiei dagokienez, izan ere, aurten talde honek egindako proposamen bat ezin izan da egin aurrekonturik ez zegoelako; jakina, ez zen hemen proposatzen den zenbateko-gehitzea, askoz ere txikiagoa zen, baina horixe da, izan ere Leioak 30.000 biztanle ditu gutxi gorabehera, eta horietako asko txikiak dira, eta Eguberriak garai garrantzitsua da umeentzat; beste udalerrri batzuek



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

beste gauza batzuk dituzte eta beraiek, oraingoz, ezin dituzte egin, hortaz inguruko udalerriekiko lehia barregarri batean sartuko litzateke, baina egia da aurrekontu honetatik prest jarriko balitz, hala balegokio, gaur egun dagoeneko egiten diren jarduerak osatzeko beste jarduera batzuk proposatuko litzuketela.

Esan du ez duela behin eta berriz errepikatuko; izan ere aurrekontu-sailaren izenak berak esaten du, erretiratuen etxeak dinamizatzeari, hori beharrezkotzat jotzen dute. Hezkuntza lan-saila sortzea, adierazi du ez dela hori egiteko unea, izan ere aurrekontuei buruzko eztabaida da, baina geroago horiei buruz hitz egingo dute; izan ere, beste udalerrietan Hezkuntza lan-saila dute, eta horrek erantzuten die Udalak udalerrian kokatutako ikastetxeekin duen harremanari eta erantzukizunari. Saila txikia da, apenas iristen da administrari baten soldatarako, baina ekiteko unea izango litzateke, eta futurologia egiten uzten baldin badiote, uste du hemendik ez denbora luzera lansaio hori izango dutela, eta segur aski hobeto hornituta.

Genero Planaren kanpainari dagokionez, Gizarte Ongizateko langileek eskatzen dute ez soilik argitaratzen denera iritsi ahal izatea baizik eta argitaratzeko aukera ere izatea, eta horrela, bere eskumenekoak diren hainbat gaitan eragingo litzateke.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du ohar orokor bat egin behar zuela; esan du Alderdi Sozialistaren bozeramaileak esaten duen guztia Aurrekontuan islaturik dagoela.

Leioako aurtengo eguberrietako eskaintza eredugarria da, Alderdi Nazionalistaren iritziz, nahiz eta ezin hobea izan ez. Baina uste du antzeko tamaina duten udalerrien testuinguruan ikusten baldin bada ez diela inork irabazten. Berritoki esan du Alderdi Sozialistak proposatzen duen guztiak aurrekontuko diru-izendapena duela.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du, Alderdi Sozialistak mahairatzen dituen zuzenketei dagokienez, ulertzen dutela oro har eta dagoeneko aurkeztu direnez aparte, transakzio-zuzenketa batzuen bitartez oraintxe bertan ikusi direla; nolana ere, zuzenketa interesgarriak direla iruditzen zaie, baina udalerraren arazo nagusiei ez dietela erantzuten eta ez dituztela konpontzen uste dute.

Finantza-ketaren gain, gustuko du gai honetaz aritzea, Mendibile Jauregia elkarteak, esate baterako iaz bezala Alderdi Sozialistak dirua kendu nahi dio elkarte horri. Uste dute udalerrarentzat proiektu interesgarria dela eta, hasiera batez, ez duela merezi aurrekontua murriztea.

Oro har, beren iritziz mahairatzen diren proposamenak ez dira nahikoak. Alde horretatik indartsuagoak izan zitezkeela uste dute. Printzipioz ez daukate aurka bozkatzeko adinako irizpiderik, baina halaber, ez dute ikusten oro har aldeko botoa emateko moduko indar nahikoa dutenik.

Nolana ere, badago aurrekontu-sail bat printzipio demokratiko hutsagatik erabat onartzen dutena, hau da, Udalbiltzaren aurrekontu-saila edukirik gabe uztea, aurrekontu-erakunde gabe uztea; alde horretatik, eta beraiek ez dakite ea egin litezkeen, alegia zehazki aurrekontu-sail hori bere aldetik bozkatzeari, izan ere beraiek beren babesa eman nahi diote Alderdi Sozialistak egin duen proposamen horri.

Gainontzeko proposamenei dagokienez, Alderdi Sozialistak egin duen lana errespetatzen badute ere, Leioak beste zuzenketa-mota bat beharko lukeela uste dute, Alderdi Sozialistak aurkeztu dituen zuzenketa hauek behintzat ez dietela erantzuten, oro har, udalerraren beharrei.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du Leioan 102 urte eman ondoren bere iritziz Alderdi Sozialistak baduela udalerrri honen beharrei buruzko ikuspegi argia. Berriro dio, 102 urte, ezin du mundu guztiak esan hori.

Nolanahi ere, egia da, baita ere, batzuentzat beharrezkoa edo oso garrantzitsua dena beste batzuentzat aldiz ez dela hainbesteko, eta beraiek gizarte arloarekin zerikusia duten zuzenketak aurkeztu ohi dituztela eta, bistan denez, baita beste hainbat gairekin zerikusia dutenak; izan ere, La Avanzada ez da zehazki gizarte-arazo bat, baina horrek sortzen dituen gizarte-arazoak garrantzitsuak dira eta nolanahi ere beraiei beraienak nahiko garrantzitsuak iruditzen zaizkie.

Udalbiltzaren gaia bozkatzeko proposamena dela eta, beraiek ez lukete arazorik izango hori bozkatzeko, baina uste du prozedura kontuan hartzen baldin bada hori ez dela zuzena, izan ere beraiek Udalbiltzaren saila hiru zatitan banatu dute bere gastua murrizteko eta beste batzuen gastua handitzeko, eta, edozein modutan ere, geroago hitza hartzean Udalbiltza aipatuko du horrela prestatuta zeukalako; alde horretatik beraiek horretaz mintzatu izana deitoratu du.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Ondoren bozkatu egingo dela adierazi du.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiorrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Guztiak batera bozkatuko diren galdetu du, eurek boto ezberdina emango baitiete batzuei, 11, 23 eta 28. zuzenketetan zalantzak baitituzte.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin 11, 23 eta 28. zuzenketak bozkatuko direla adierazi du.

Bozketa egin aurretik, Mercedes Angulo Ordozgoiti andrea batzarretik joan da.

PSE-EE-PSOEk AURKEZTUTAKO 11. ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA:

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko bost boto**, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; era berean, **lau abstentzio** ere egon dira, PPko lau zinegotzianak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **ez du onartu** PSE-EE-PSOEk aurkeztu duen 11. zuzenketa.

PSE-EE-PSOEk AURKEZTUTAKO 23. ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA:

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko bost boto**, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; era berean, **lau abstentzio** ere egon dira, PPko lau zinegotzianak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **ez du onartu** PSE-EE-PSOEk aurkeztu duen 23. zuzenketa.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PSE-EE-PSOEk AURKEZTUTAKO 28. ZUZENKETAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA:

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko bost boto**, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; era berean, **lau abstentzio** ere egon dira, PPko lau zinegotzianak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **ez du onartu** PSE-EE-PSOEk aurkeztu duen 28. zuzenketa.

PSE-EE-PSOEk AURKEZTUTAKO GAINERAKO ZUZENKETA (1-10, 12, 14, 15-22, 24, 25, 27 ETA 29) BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko hiru boto**, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; era berean, **sei abstentzio** ere egon dira, PPko lau zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **ez ditu onartu** PSE-EE-PSOEk aurkeztu dituen 1-10, 12, 14, 15-22, 24, 25, 27 eta 29. zuzenketa.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du oso azalpen laburra egin behar zuela. Esan du abstentziorik gehienak eragindakoak direla, izan ere, helburuetako askorekin bat baldin badatoz ere, ez daude ados finantzaketaren zati handi baten moduarekin. Azaldu du batik bat Udaleko langileek hitzartutako egoera jakin batzuk amaitzeari buruz ari zela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du orain Alderdi Popularrak aurkeztu dituen zatikako zuzenketa eztabaidatuko dituztela. Bere ustez batera eztabaidatu eta bozkatu behar dira, izan ere zuzenketa hauetan ez da finantzaketa-ezberdintasunik, zuzenketa multzoaren finantzaketa orokorra baita.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du aurrekontuari aurkeztu dizkieten zuzenketa azaldu behar dituela, uste baitu horien guztien artean Aurrekontua nabarmen hobetzen dutela. Zuzenketa udal kudeaketaren hainbat arlori eragiten diete, hala nola, hirigintzari, inbertsioei, udal jardunbideari, kultura, kirol eta gazteriari, hezkuntzari, gizarte-ongizate eta osasunari, ingurumenari eta merkataritzari. Aurrekontua hobetuko luketela uste duen gutzira 1.700.000 euro, Leioako herritarren beharretara egokitzeko.

Azaldu du zuzenketetan mahairatzen dituzten aurrekontu-sailek terrorismoaren biktimen elkarteei diru-laguntza ematea dutela xede, izan ere beraien ustez udal honek elkarte horiei diru-laguntza emateko ahalegina egin behar du, eta terrorismoaren biktimen elkarteei konpromiso sendo eta garrantzitsua erakutsi behar du.

Adierazi du Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Bizkaiko egoitzari diru-laguntza ematea mahairatzen dutela, hain zuzen ere ikusten dutelako hurbileko beste udal batzuek laguntza ematen diotela unibertsitate horri, izan ere unibertsitate horrek zerbitzu ematen die bizkaitar guztiei, eta interesgarria iruditzen zaie udal honek konpromisoa hartzea.

Inbertsioen gaiaz den bezainbatean, La Avanzada osoki estaltzeko aurre-proiektu arako dagoeneko ezaguna den aurrekontu-sailaz alegia, adierazi du ez duela



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

errepikatu nahi, bai baitakite La Avanzada osoki estaltzea ez dela Udalaren eskumena, baina Udalak ahalegin ekonomikoa egin baldin badezake, kasu honetan, aurre-proiektu bat aurrera ateratzeko, La Avanzada osoki estaltzea zenbat kostako den jakitea, uste dute beharrezkoa dela Udalak ahalegin hori egitea, aurre-proiektu hori egitea, egiteko agintzea eta Aldundiari aurkezteko dokumentu zehatza edukitzea, obra zein datatan egin litekeen, beharrezko aurrekontua etab. zehaztuta.

Udaletxearen gaiari buruz, uste dute beharrezkoa dela udaletxe berria izatearen inguruko gai honetan aurrera egitea, izan ere, beraien iritziz zenbait proiektu interesgarriak dira eta Leioaren motore gisa jardun dezakete, hala nola planetarioak eta Ingurumen Ikasgelak eta erakustazokaren proiektuak; izan ere, uste dute Leioak aukerak baliatu egin behar dituela, iruditzen zaie proiektu horiek udalerrriak aprobeitza ditzakeela.

Mikrobusen hiri-arteko sare baten gaia aztertzeaz den bezainbatean, tranbia iristearen zain, pentsatzen du mikrobus sare honek herritarrei zerbitzatu behar diela eta behin tranbia, espero dezagun urteren batean ezarrita egotean, mikrobus sare horrek tranbiaren osagarri modura jardungo luke.

Leioako campusa hobetzeaz den bezainbatean, adierazi du begi bistakoa dela campusak hobetzea eskatzen duela eta horri laster ekingo zaiola, eta beraien iritziz udalak konpromisoa hartu beharko luke horretan.

Udal merkatua berritzeari dagokionez, berriz, esan zaie dagoeneko beste bilkuraren batean gai pribatua dela, baina gai garrantzitsua da udalerrriaren bizitzan, baita merkataritza oro har ere, eta uste dute merkatua ez duela behar beste bultzatzen Udalak. Oso eginkizun garrantzitsua betetzen du, eta uste dute Udalak ahalegina egin behar duela merkatua berritzeko eta babesteko.

Auzoak apaindu eta edertzeari dagokionez, uste dute alde horretatik ahalegin handiagoa egin behar dela. Zaborrak lurpean biltzeko sistema ezartzearen azterketa egitea mahairatzen dute. Espero dute etorkizunean tranbia ezartzeak bizikidetzaren arazo bat sortuko duela zaborrak biltzeko kamioien artean, batik bat hirigunean, Sabino Aranak kalean, izan ere tranbiarekin, uste dute udalerriko zenbait ingurutan sistema hau ezartzea, zehazki Sabino Arana inguruan ezartzea, hori aztertzea onuragarria dela; eta dagoeneko badaude beste udal batzuetan zaborrak lurpean biltzeko esperientzia positiboak, hala nola, Barakaldon eta Portugaleten, eta uste dute Leioak ere bat egin behar duela horrelako zabor-bilketarekin komenigarritzat jotzen diren inguruetan.

Pinuetarako aparkaleku berriari dagokionez, dagoeneko ezarri behar denaz gain, aztertu beharko litzateke zein beste irtenbide berri eman daitezkeen. Badakite ez dela erraza, baina ez da geldirik utzi behar.

Udal talde politikoentzat, adierazi du partida bat nahi dutela prestasun handiagoa izan dezaten eta udal gaiei denbora gehiago eskaini ahal izan diezaieten. Horretaz gain, udal kontratazio bulegoa indartzeko eskatzen dute, web orria eta udal aldizkaria hobetzeko partidak, izan ere, bere taldearen iritzian, benetan hobetu egin daitezke, udal aldizkaria Gobernu Taldearen propaganda organoa baita argi eta garbi. Bere talde politikoak behin eta berriz mahairatu izan dutenari dagokionez, hain zuzen ere, beharrezkoa dela udal taldeen ahotsak ere sartzea, horiek ere udal aldizkarian sartzea, eta erantzuna ezaguna da, Gobernu Taldearen isiltasuna.

Leioako garraio publikoaren informazioari dagokionez, esan du Leioan dagoen garraio murrizta, eskasa dela gainera. Ia ez dago informaziorik, eta horregatik, biztanleei informazioa emateko ahalegina egin behar da, alegia, zer autobus dauden, zein ordutegitan eta zein tokitan gelditzen den etab.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Kulturan, kirolean eta gazteriaren arloan, aisialdi-egitasmo alternatiboa mahairatzen dute; behin eta berriz eskatzen ari dira eta badirudi Gobernu Taldeak ez duela horretarako interesik.

Kultur eta kirol taldeentzako diru-laguntzen esparruari dagokionez, talde horientzat partida gehiago izatea nahi dute.

Eguberrietako kultur ekitaldiak sustatzea proposatzen dute, horretarako, esate baterako, Eguberrietako Haur Parkea antolatuz. Adierazi du aurretik ere izan direla beste zenbait tokitan Eguberrietako haur parkeen esperientziak, hala nola, Getxon eta Bilbon, eta adierazi du ea zergatik Leioak ezin dituen irtenbideak hemen bilatu, haur parke indartsu bat, beste udalerrientzat erakargarri izan dadin. Leioako Hiria literatur saria ere proposatzen dute, urriaren 31 ospatzea; uste dute badagoela berriaz partida bat ospakizun garrantzitsu horretarako; badirudi Udalak, bere udal talde politikoak hainbat urtetan eskatu ondoren, hori berreskuratzea eskatu duela, urriaren 31, azkenean Udalak, Gobernu Taldeak, erabakia hartu du berriazko ekintza egiteko, urriaren 31ren ospakizuna azpimarratuz, data hori indartu nahi dute, uste baitute Hiria egiteko eta Udalerria egiteko balio duela. Horretaz gain, liburu-azoka berreskuratzea mahairatu dute.

Leioara Euskal Herriko Txirrindulari Txapelketaren etapa bat ekartzeko partida bat egotea nahi dute. Zegokion unean dagoeneko aurkeztu zioten proposamen hori Kirol Batzordeari. Halaber, Leioara nazioarteko xake-txapelketa bat ekartzeko proiektua proposatzen dute, izan ere uste dute proiektu garrantzitsuak direla eta udalerriari bultzada bat emateko balio izan dezaketela.

Hezkuntzan, uste dute badagoela gai garrantzitsu bat, hain zuzen ere haur eta lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako testuliburu-erakunde diru-laguntza. Ulertzen dute hori familiek urtero egin behar duten ahalegin bat dela eta Udalak beste erakunde batzuekin egin behar duen ahalegin bat dela, hala nola, Aldundiarekin, baina uste dute Udalak ahalegina egin behar duela eta aurrekontu-sail bat alderdi horretara bideratu behar duela.

Inguruko udalerriekin batera hezkuntzako eskualde-mailako feria egitea mahairatzen dute. Ekintza horretan, herritarrei eskualdean zein hezkuntza-eskaintza dagoen aurkeztuko litzaieke. Berriazko eskola-kanpainak proposatzen dituzte gai garrantzitsuetarako, besteak beste, birziklapenerako, iraunkortasunerako eta tabakoaren kontra kontzientziatzeko kanpaina.

Gizarte Ongizatean eta Osasun arloan hainbat partida proposatzen dituzte arazo garrantzitsuei aurre egiteko, hala nola, larrialdiko ostatuaren gaiari aurre egiteko, aurrekusi gabeko gizarte-larrialdiko beharretarako edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonen aldi batez ostatu emateko; tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako laguntza telematikoko programa pilotuak; anorexiaren eta bulimiaren moduko kasu edo gaixotasun zehatzetarako aholkularitza-egitasmoak, edo famili indarkeriaren kasuak tratatzeko; laguntza psikologikoa, halaber, seme-alabengandik tratu txarrak jasan litzaketen gurasoentzako, izan ere arazo sozial hori gerta daiteke; udalerrian dauden biztanle etorkinei buruzko azterketa; haurtzaindegiei ordaintzeko partidak; alkoholaren kontsumoari buruzko kanpaina eta ezgaitasun handiko pertsonentzako aurrekontu-saila handitu.

Ingurumenaren arloan, Life Ingurumena egitasmoa prestatzea mahairatu dute. Europa-mailako proiektu bat da, eta Udalak parte har dezake Europako Batasuna ingurumen-esparruak berreskuratzeke zereginean inplikatu dadin, esparru horiek Udalarentzat aberatsak izan baitaitezke.

Udondo ibaiaren inguruko hezetasun-guneari buruzko azterketa egitea mahairatu dute, azterketa Leioako fauna, flora eta geari buruzkoa, edo proiektu bat, hain zuzen, balioa emateko Leioaren gea bolkaniko horri. Uste dute garrantzitsua dela Udalak balioa ematea alderdi horri.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Leioako zaraten mapa egitea proposatzen dute, Udalerriaren Ingurumen diagnostikoa egitea alegia. Izan ere, azpimarratu du Leioak ez duela zaraten maparik, kontuan hartuta Leioan, zoritxarrez, zarata asko daudela, ez soilik La Avanzadakoak, baizik eta dauden industriatakoak ere bai, batik bat Lamiako inguruko industriena. Eta iruditzen zaie Udalak zaraten mapa egin behar duela.

Amaitzeko, tokiko merkataritzari laguntza ematea proposatu dute, Izan ere, Udalak gehiago inplikatu behar du merkataritzari laguntzen. Esan zaie merkataritza-jarduerak gora egin duela, baina iruditzen zaie, zalantzarik gabe, hazi egin baldin bada ez dela Gobernu Taldeak hartu duen konpromiso irmoarengatik. Konpromiso handiagoa izatea nahi dute, eta horretarako bertako merkataritza sustatzeko aurrekontu-saila handitzea proposatzen dute, eta, horretaz gain, proposatzen dute Udalak saria antolatzea urtero merkatariren baten merkataritza-jarduera nabarmentzeko.

Azkenik, finantzatzeko hainbat aurrekontu-sail mahairatu dituzte, beraien ustez baliagarriak izan daitezkeen mahairatu dituzten proiektuak edo zuzenketak finantzatzeko. Iruditzen zaie finantzaketaren zati handi baten sorburua izan litekeela zenbait zergatan dirusarren aurreikuspen handiagoa egitea. Uste dute mahairatzen dituzten zerga-handitzeak egin litekeela udalerriaren garapena kontuan hartuta, eta, gainera, aurrekontu-sail batzuk kendu nahi dituzte, batez ere Udalbiltzarena; kendu egiten da, halaber, gastu orokorra, baita EHU Artea kalean ere, izan ere, beraien ustez EHUK behar duena Leioak eremu fisikoa berreskuratzeko konpromisoa dela, eta Ikerketa, Azterketak eta Proiektuak aurrekontu-saila ere kentzen dute, izan ere zuzenketetan hainbat aurrekontu-sail mahairatu dituzten zenbait azterketa egiteko.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du labur azalduko duela eta erdua errepika dadila. Esan du Batzordean adierazi zuen moduan finantzaketa konplexua dela iruditzen zaiola, izan ere, tasen eztabaidetan hainbat eta hainbat diru-laguntza mahairatzen direnean eta beherapenak era diskriminatuan askotan kontuan hartu gabe errenta-mailak etab., kontua da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan %10 gehiago dagoela, Gainbalioan %20. Trakzio Mekanikoan %10, jakin badakigun arren salbuetsi mordera dagoela, eta hori zerbaitengatik izango dela, eraikuntzetan %10, lizentzietan %30 edo %40, %50 hirigintza-konpentsazioetan eta gero, gainera, ezusteko guztiak kendu, eta hain zuzen ere horiek dira askotan batzordeetan aurrera ateratzea lortzen diren proposamen urriak hezurramitu dituztenak. Hori dela eta, zaila iruditzen zaio.

Adierazi du badaudela hainbat aurrekontu-sail orratzez hartuta daudela iruditzen zaizkionak, eta batzuk, enbarazu egiten diotenik esatera ez da iritsiko baina bai gogorak iruditzen zaizkiola. Esate baterako: Udalaren web orria hobetzea eta horretarako bere aurrekontua bikoiztea edo oraindik ere diru gehiago ematea; uste du beste gauza batzuetan pentsatu beharko litzatekeela, taldeek horra iristearen kontua barne, edota ikusi ohi diren gauzak edo askotan ikusi direnak, hala nola, UHUNi diru-laguntza ematea, eta planetarioari. Izan ere, uste du bi gauza horiek bateratu nahi baldin badira uste du Portugaleteko planetarioaz hitz egin litekeela, planetarioaren lagunak izan, hori konpontzen eta mantentzen lagundu. Halaber, hainbat azterketa mahairatzen dira eta horiek, askotan Aurrekontuetan jasota ikusi dira, edo, kasu batzuetan, bere auzoko aparkaleku berria barne, izan ere hemen Pinuetako Plan Berezia hondatzen joan dira harik eta bere adierazpenik txikienera murriztu arte. Aparkaleku bat proposatu dute; lehen bi aparkalekuz hitz egiten zen, eta ildo horretan ez du kexa asko entzun.

Adierazi du bat zetorrela erabat oposizioko kideen dedikazioaren finantzaketaren arazoarekin. Kontua da, berriro dio, mahairatzen den finantzaketak ez diola uzten aldeko



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

botoa ematen, eta horretaz gain, badaude hainbat gauza eta horietan, batzuekin ados egon arren, beste batzuetan, berrio dio, iruditzen zaio pentsaera hau dagoela pixka bat: ea, ikus dezagun ea hogeita bostetik gora egiten ditugun! Horrelaxe ikusten du eta horrela sentitzen du. Hori dela eta, zatikako zuzenketei ezezko botoa emango diete.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du labor azalduko duela. Esan du zergei eta tasei dagokien atalean bere taldea bat zetorrela lñaki Gomendiourrutiak esan duenarekin eta ez duela errepikatuko.

Esan du zuzenketak aurkezteko erabili den teknikari dagokionez eragotzi egiten diela bati baiezko botoa ematea, izan ere osotasunari eman behar zaio botoa finantzaketaren gaiarengatik. Nolanahi ere den, berak ez luke inolako arazorik izango bi zuzenketari baiezko botoa emateko, hain zuzen ere UHUNi buruzko zuzenketari eta terrorismoaren biktimei diru-laguntza emateari buruzko zuzenketei.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du lñaki Gomendiourrutiaren jardunari jarraiki labor mintzatuko dela. Esan du PPko Xabier Olabarrietak aipatu dituen zuzenketa guztietan sartu gabe aipamen bat egin nahiko lukeela aurrekontuaren arloan nolabaiteko pedagogia egiteko, eta ea batzuek besteei esaten dietenak zerbaitetarako balio duen ikusi. Hori horrela, soilik hirigintzaren esparruari buruzko aurrekontu-sailak hartuko ditu aipagai, horiek dira-eta berak gehien ezagutu ditzakeenak.

La Avanzada osoa estaltzeko aurre-proiektuari dagokionez, berak espero du 2006. urtean udalaren eta Aldundiaren artean aurreproiektua egin ahal izango dela, jakiteko ea zer egin daitekeen; baina La Avanzada estaltzeak mila milioi pezeta balio baditu, proiektua eta zuzendaritza %5 da, hortaz berrogeita hamar izango lirateke, soilik proiektua hogeita bost izango lirateke, aurre-proiektua hamabi eta erdi izango lirateke, horren %50 ordaintzeko denez sei milioi izango lirateke, eta Alderdi Popularrak 125.000 euro mahairatzen ditu La Avanzada estaltzeko proiektu baterako. Berak uste du Aurrekontuak sartuta dituen 240.000 euroetan diru nahikoa badagoela La Avanzadari buruzko aurre-proiektu bat egiteko.

Udaletxe berriaren proiektuaz eta Udaltzaingoaren egoitzaz den bezainbatean, iragarri du ez dutela proiektu baten beharrik. Iragarrita dagoela udaletxea handitzea, gizarte zerbitzuen ildo berean, hau da, etxadi honetan bertan dauden lokalak erabiliz zerbitzuak ezartzeko, baita talde politikoentzako bulego berriak ezartzeko ere.

Lurrazpiko pasabideak hobetzearen gaiari dagokionez, adierazi du pasaguneak egitea mahairatzen ari zela, eta lurrazpiko pasabideak kendu egingo direnez, bere iritziz ez da horiek hobetu beharrik.

Planetarioaren proiektuari eta erakustazokaren proiektuaren azterketari buruz, adierazi du berari grazia egiten ziola, epe motzerako ikuspegia edo ikuspegi mikroskopikoa dutenak beraiek dira, alegia, uste du Alderdi Popularrak, besteak beste, metropolian txertatzen ere jakin behar duela, eta jakin Leioak metropoliari zer ekarpen egin diezaiokeen eta, halaber, metropoliaz zertan balia daitekeen. Eta are gehiago, hain zuzen, orain dela gutxi Durangoko azoka izan dela kontuan hartuta. Landakoko erakustazokan egin da, eta erakustazoka horretan ez dakite zer egin azoka horretaz gain; horretaz gain, BEC dago, kotxez hamabi minutura; horiek horrela, argi dagoela ez dakiela metropolian txertatzeaz nola balia daitezkeen.

Mikrobusen azterketari dagokionez, iragarri du egiten ari dela. Leioako campusa hobetzeari buruz, berriz, esan nahi baldin bada Leioak campusa hobetzeko zerbait ordaindu behar duela, hori baldin bada berak ulertu duena, ikaragarria dela iruditzen zaio.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udal merkatua berritzeko azterketari dagokionez, adierazi du Gobernu Taldeak gustura lagunduko lukeela diruz horrelako proiektu bat, baina jabeen erantzukizuna dela.

Auzoak apaindu eta edertzearen gaia hartuta, uste du hori dela txundigarriena denetan, izan ere, urtero ehun eta hogeit hamar milioi pezetatik gora xahutzen da horretan, eta espaloiak berritzen, asfaltatzen, berrehun milioi daude, eta PPK 23.000 euro ipintzen ditu auzoak apaintzeko eta edertzeko.

Adierazi du aste batean non estatu honek izan duen ekarpen politiko handiena dela batek besteari txoro galantadeitzea dela, oso gogorra ez izaten saiatu behar du, baina sentitzen duen moduan dio, hau da, iruditzen zaio zuzenketek, lehenik, zapaltzen den errealitatea ez dutela ezagutzen erakusten dutela, izan ere PPK Leioa izatea nahi duenari buruzko ikuspegi falta erabatekoa dago, eta hemen zehazten diren argi urriek ez dute enpatiarik txikiena Leioako herritarrak Leioa izatea nahi duenarekin, eta ez ditu hurbil ezagutu dituen sei edo zazpi zuzenketak besterik aztertu, ez du ezer esan nahi gainontzeko zuzenketekin jarraituz gero zer izango litzatekeen.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Pinuetako aparkaleku berriari buruz esan du une honetan hirigintza-proiektua idazten ari direla, hau da, dirua gastatu baldin bada Pinuetarako proiektuetan gastatu dela. Adierazi du, horren inguruan, Iñaki Gomendiourrutia txalotzen duela, Pinuetako Plan Bereziarekin lan egindakoaren ondoren, gastatu den diruaren ondoren, eta beldur da soilik utzikeriak eta ausardia politikorik ezaren ondorioz batzuen aldetik handizaleagoa ez izana izatea. Esan du ez zela beharrezkoa Pinuetako aparkaleku berriari 25.000 euro xahutzea, izan ere une honetan hirigintza-proiektua idazten ari dira; hori dela eta, ezagutza-falta nabaritzen du.

Adierazi du haurtzaindegietarako bekak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direla, eta ez Udalarenak; hori dela eta, zer xahu daiteke eskumenen gainetik? Denetan, baita liburuak erosten ere, baina eredu instituzional osoaren ikuspegi eza nabarmena dela iruditzen zaio, eta horri buruz azaldu du berak beti esan izan duela Leioa gauza askotan hoberena izan daitekeela, uste du, apalki, oso onak izaten ari direla, ez hoberenak.

Bere hitz egiteko txandari amaiera emateko, adierazi du proposamen batzuk, hala nola, erakustazoka, planetarioa, errealitatetik kanpo daudela. Argitu du PPren jarrera errespetatzen duela baina lehen ilusioaz hitz egiten bazuen, lehenengo ilusioa izan behar da gauzak ezagutzearen eta eremua ezagutzearen ondorioz, izan ere, egia esateko, Euskal Herriko Txirindulari Itzulia edo Xakeko Nazioarteko Txapelketa ekartzea interesgarria izan daiteke baina aukera horiek Batzordean jorratuak izan dira dagoeneko eta ikusi da askoz ere emaitza positiboagoak dituzten beste gauza batzuetan xahutu behar dela dirua, Leioako gazteengan eragin askoz ere handiagoa duten gauzetan. Ildo horretan, zuzenketak, Iñaki Gomendiourrutia esan duen moduan, goazen 40 zuzenketaralisan dela iruditzen zaio, eredu alternatiboaren itxurak egitea alegia, baina ez da eredu alternatiboa, Udal Aurrekontuari egindako proposamenen makillaje nahiko zarpaila da, bere iritziz, eta errespetuz esaten du.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du erantzun eta Gobernu Taldearen Aurrekonturako zuzenketa-proposamen baliozkotzat jotzen dutena defendatu behar duela. Uste dute, nolahi ere, beraiek gainerako talde politikoei buruz ospea kentzeko kalifikatiboak erabiltzeari uko egingo diotela, Gobernu Taldeak batzuetan horiek erabiltzeko joera izan arren.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Esan du aurkeztu dituzten zuzenketak defendatu behar dituela. Uste dute eredu bati erantzuten diotela, ilusio bati, udalerraren aldeko proiektu ezberdinei. Horrekin, nolahi ere, bistan da ados egon daitekeela edo ez, eta Gobernu Taldeak zenbait proposamenekiko bere desadostasuna azaltzen du, bestela ezin baitzitekeen izan, izan ere, besteak beste, oposizioko taldeek proiektu-proposamenak mahairatzea, ilusiozko proiektuak, Leioarako etorkizuneko proiektuak mahairatzea, bistan denez Gobernu Taldeak begi onez ikusten ez duen zerbait da eta hori eguneroko jardunean ikusten da.

Pinuetako aparkaleku berrirako egin duten proposamenari dagokionez, bistan da, adi daude Pinuetarako aparkaleku berrirako proiektu bat badagoela, baina Talde Popularraren proposamenean zetorrena zen auzoa berritzeko edo aurorako irtenbide orokorragoaren proiektua ez alde batera uzteko, alegia, geldirik ez uzteko eta lan egiteko auzo horretako arazoari irtenbide osoa emateko aparkaleku berrietarako kokaleku berriekin.

Bere talde politikoak aurkeztu dituen proposamenetako batzuk deskalifikatu egin dira, baina beraien iritziz azterketa zehatzak izan behar dira aurkezten diren proposamenetarako, hala nola, La Avanzada estaltzeko aurre-proiekturako, edo udaletxe berriaren proiekturako. Udal zerbitzuak kokaleku ezberdinetan banatzeko Gobernu Taldeak duen asmoa ikusita, Gizarte Zerbitzuen kokalekua udaletxetik kanpo egoteak zentzua izan baldin badezake ere, beste zerbitzu bat ateratzen hastea, hala nola, Bulego Teknikoa ateratzea, pixka bat adabaki politika iruditzen hasi zaiela dio, hau da, dauden eremu edo tokiak aprobetxatzen joaten dira, Udalaren zerbitzuak toki ezberdinetan kokatzen joaten dira; jakina, hori herritarrari zer nolako zerbitzu osoa eman nahi zaion ideia edo proiektua argi ez izatea dela uste dute, alegia, ahal den tokia aprobetxatu eta udal zerbitzuak kokatzen joatea dela. Azaldu du politika horrekin ez datozela bat.

Lurrazpiko pasabideei dagokienez, hainbat pasagune egingo direla esaten da; horren proposamena, printzipioz, beraien ez dute osoki babestu, izan ere Aldundiarekin izenpetu zen proiektuaren bozketan abstenitu egin ziren. Lurpeko pasabideak hobetzea ekonomiari begiratuta politika hobea izango litzatekeela uste dute. Europako beste herrialde batzuetan egin dira hobekuntzak, lurpeko pasabideak leheneratu eta herritarrarentzat erakargarriago bihurtu eta, zalantzarik gabe, pasaguneen gaia baino proposamen hobea izango litzateke. Eta azken batean pasaguneetatik epe luzera egiten dutena da La Avanzadako eremua finkatu, eta lurpeko pasabideen bidez estaltzeko proiekturik hurbilena izan liteke.

Adierazi du ez dela gehiago luzatuko, besterik gabe uste dute beraien proposamenek nahi duten ideari eta bere talde politikoak Leioan sustatu nahi duenari erantzuten diela. Hainbat proposamen mahairatzen dituzte eta hori da duten ideia, eta horregatik aurkeztu dituzte aurrekonturako zuzenketak.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du Alderdi Popularraren zatitako zuzenketak bozkatzeari ekingo zaiola.

ALDERDI POPULARRAK AURKEZTUTAKO ZATIZKO ZUZENKETEN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAR EN ERABAKIA

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko lau boto**, PPko lau zinegotzianak; **kontrako hamahiru boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; **hiru abstentzio ere egon dira**, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak. Udalaren osoko bilkurak, beraz, **ez ditu onartu** PP taldeak aurkeztutako zatizko zuzenketak.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Esan du ondoren zuzenketarik izan ez duenari buruzko eztabaidari ekingo diotela, eta azkenik, Aurrekontua bozkatuko dutela.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Esan du berriz ere labor azaltzen saiatuko dela. Adierazi du zatikako zuzenketetan babestuko zituzkeen hainbat alderdi daudela uste duela; horrek esan nahi du proiektu horretan, ber eustez, aurrekoak hobetzen diren arren, eta aurreko ekitaldiekiko aurten epea eta denbora asko hobetu diren arren badaudela hainbat alderdi hobetu egingo lituzketenak, eta halaber egiteko denborak ere hobetuko lituzketela, hartara egiterakoan benetan parte hartu ahal izateko, idatzi aurretik, izan ere gero askoz ere zailagoa da aldatzea.

Azkenik, abstenitu egingo direla adierazi du. Horren arrazoia goian aipatutakoak dira, batetik, eta, bestetik, qposizioarentzako laguntza ekonomikoari buruzko gaiak linboan jarraitzen duelako.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du zuzenketarik izan ez duen Aurrekontu zatiari dagokionez bere taldeak hasiera batean kontrako botoa mahairatu behar duela, hain zuzen ere aurkeztutako aurrekontu honek, osoko zuzenketaren justifikazioan dagoeneko argudiatu duten moduan, Leioak dituen behar garrantzitsuei ez diela erantzuten uste dutelako. Alde horretatik mahairatu dute beraien ezezko botoa, eta azpimarratu dute, gainera, aurtengoa elkarren segidako hirugarren urtea dela non, aurkeztu dituzten zatitako zuzenketetatik dirudienek bakar batek ere ez duen Gobernu Batzordearen babesia izan. Alde horretatik, uste dute oposizioko talde politiko batek egin ditzakeen proposamenen gainean gehiengoa aplikatzen dela era indiskriminatuan.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du argitu nahi diola ezinezkoa dela zuzenketak aurkeztu diren moduan zuzenketak banan-banan bozkatzea, eta ezinezkoa dena ezin da egin.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du gaiaz hitz egin baino lehen bi iruzkin egin nahi dituela: bata, Kultur Leioari dagokionez pendiente dauden ehun eta laurogeita bost milioiei buruzkoa; horren inguruan, ez da beharrezkoa esatea baina Alderdi Sozialistako bere udal taldea gai horretan lanean ari da, eta gai horretan, zehazki, ez dituzte bere udal taldearen interesak beste edozein udal talderenetatik bereizten, izan ere hau Leioari dagokion gai bat da, eta ongia edo gaizkia, eta hau guztia zein ongi edo gaizki gelditzen den, ondo atertzen bada ez diote beraiei egotziko, denei egotziko diete, eta gaizki irteten bada, berriz, alkatea jaunak esan duen moduan, denok dugu parte alikuota bat, eta hortaz denek onartuko dute beren zatia alderdi politiko gisa.

Landakori dagokionez, Eneko Arruebarrenari zuzendurik, adierazi du Azokarako balio duela eta beste gauza batzuetarako balio duela, arrosaren festa bikaina ospatzeko barruan bost mila pertsona daudelarik, beraz, bateko edo besteko, bere erabilera ere badu.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Nolanahi ere, hasteko, argitu nahi du Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra alderdiak duen jarrerari buruz gaur osoko bilkura honetan egon litekeen zalantzaren tertzioa, eta azaldu du beraiek ez diotela baieztatu botoa eman behar Gobernu Taldeak aurkeztutako Aurrekontuari.

Eman behar duen arrazoietako bat Udalbiltzaren gaia da. Lehenago ere esan izan dena esan behar du, eta beste zerbait, baina beraientzat euskal munizipaltasuna EUDELen bitartez ulertzen dute, eta, hala dagokiolarik, Espainiako munizipaltasuna Udalerrien Espainiako Federazioaren bitartez ulertzen dute. Nolanahi ere, era berean argi utzi nahi du bere alderdiak ez duela inolako eragozpenik mugaren bi aldeen artean kultur eta ekonomi harremanak ezartzeko, ezta harreman politikoak ezartzeko ere, eta mugaren bi alde horien artean, Frantziaren eta Espainiaren artean badago erkidego bat euskaldunen erkidego deitzen duguna. Hortaz, zalantzaren bat baldin badago, irakurri Euskadiko Alderdi Sozialistak autonomia erkidegoko hauteskundeak baino lehentsuago egin zuen biltzar politikoaren emaitzak.

Aurrekontuari berari dagokionez, adierazi du badagoela begi-bistako kontu bat. Aurrekontu hau gehiago absolutu nazionalista duen gobernu talde bat aurkeztutako aurrekontua da. Hori herritarrek erabaki dute eta hori onartu beharra dago. Beste era batera izatea nahiko lukete, baina horrela da, eta horrela denez, aurrekontu-proiektuak Alderdi Nazionalistaren eta Earen munduaren ikuspegia islatzen du, eta hori ez da beraiek gauzei buruz duten ikuspegia.

Adierazi du ezin izango dutela aurrekontua babestu izan ere aurrekontuaren sorreran ez dute parte hartu, eta ezin dute aurrekontua onartu, halaber, beraiek duten ikuspegitik hain aldenduta dagoen ikuspuntu batez egina izanik. Eta aurrekontuaren sorreran parte hartu ez badute ere, ez du berariaz aipatu gabe utzi nahi Iñaki Goikoetxea, hain zuzen ere Aurrekontua aurkeztutakoan, aurrekontua egindakoan, taldeei erraztasunak eman dizkielako, edo bai behintzat Alderdi Sozialistari, aurkeztu eta eztabaidatzeko, horrek guztiarekin ados egon behar izatea ekarri gabe. Baina eskertzekoa da hitz egin ahal izatea, eztabaidatzeko aukera izatea nahitaez ados egon beharrik gabe. Horrek asko errazten du udalerriko bizitza.

Esan du oposizioaren baliabide-faltari buruzko aipamen bat zeukala baina alde batera utzi behar duela, ikusten duelako bozeramaileak elkartu egin direla eta horretaz hitz egin dutela. Edozein modutan ere, gaur baztertu du, baina egunen batean berriz ere aurkeztu behar baldin badu, berriz aurkeztuko du, eta alkate jaunari lehen bere zuzenketei buruz galdetzeko konpromisoa hartu duen gauza bera galdetuko dio.

Aurrekontuari buruz hau guztia esan ondoren, adierazi du Aurrekontuari buruz beste zerbait esan nahi duela.

Lehenik eta behin, azaldu du aurrekontu honek arrazoi ematen diela baieztatu behar duela, eta beraientzat oso garrantzitsuak diren hainbat gauzatan ematen die arrazoi. Alderdi politiko guztiek ematen diete garrantzi handiagoa gai batzuei besteei baino, eta erabat legezkoa da, eta azken batean hori bere ikuspegi ideologikoa da; eta arrazoiak ematen die hain zuzen ere minusbaliatuentzako laguntzen hainbat aurrekontu-sail handitzen dituelako. Horren harira etorrira, hitz hori aldatu egin behar dela iruditzen zaio; berak badaki kontabilitatearen gairako erabiltzen den ordenagailu-programa... baina aldatu egin behar da eta lehenbailehen egin ere. Pobreziaren aurkako borrokarako laguntza handitu da, droga-mendekotasunari aurrea hartzekoa, berdintasun jardunaldiak, emakumearen jardunaldiak, berdintasun plana, gizarte-larrialdiko etxebizitzak eskuratzea; horri dagokionez, bere taldeak aurreko urteko osoko bilkuran insistitu izana gogora ekarri du. Horretaz gain, Kontsumitzailearen Bulegoari buruzko aurrekontua hazi da, eta beste hainbat gauza.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Adierazi du azkenean arrazoi ematen amaitzen dela, izan ere aurrekontu honek esaten du beraiek alderdi horiei buruz iaz egin zituzten zuzenketak beharrezkoak zirela, hau da, Euskadiko Alderdi Sozialistak joan den urtean osoko bilkura honetan esan zuena beharrezkotzat jotzen da azkenean, zenbait lan-sailek diru gehiago behar dutelako hobeto jarduteko. Ez da nahikoa, baina urrats bat da eta aitortu egiten dute, eta, gainera, honi buruz aurretiaz inolako akordiorik egon gabe aitortzen dute; eta argi gera dadila, ez da negoziatorik izan, aurrekontuaren ondoren aurkeztutako zuzenketez hitz egin da eta ez dira botoaren izaerarako truke-txanpona izan eta, begi bistakoa denez, baiezkoa ez baldin bada abstentzioa dela ulertuko da.

Amaitzeko, lanbidearekiko erkaketa egiteko baimena eskatu du; jakina da LOGSE iraindu, gutxi ulertu eta gaizki finantzatuak dioela ikasleek kontzeptu, jarrera eta prozedura arloetako edukiak ikasi behar dituztela, eta horietako bakoitzari garrantzi bera ematen die. Bere ustez, jarrera-edukiari dagokionez Gobernu Taldeak nota ona lortu du, beharbada ez hainbestekoa kontzeptu-edukiei dagokienez, eta nota kaskarragoa lortu du prozedurari dagozkion edukietan. Hori dela eta, ezin dute gaintitu, baina, nolana ere, ezin dute oso eskas nota jarri; hortik dator beren botoaren emaitza eta bere taldearen abstentzioa.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

José Manuel Toledo Cañamero jaunari zuzendurik, adierazi du bera behin bakarrik mintzatuko dela, burutik baino barrutik ateratzen zaiola. Esan du bere mintzaldia oso gustukoa izan duela, baina gustatu zaiola hain zuzen ere badirudielako egia dela herri hau aldatzen ari dela eta denak ari direla herria alda dadin laguntzen. Uste du gaur, Alderdi Sozialistaren bozeramaileari entzun dionez, gonbita egiten dela pentsatzeko Udalbiltzarena bezalako aurrekontu-sail totema batek uneren batean totem aurrekontu-saila izateari utziko diola benetako politika egiteko, hau da, errealitateek une zehatzei erantzuten diete eta Udalbiltzaren jaiotzak ere une bati erantzuten dio, hain zuzen ere une bati non berak, euskaldun gisa eta euskal nazionalista gisa, euskal herriaren ukazioa ikusten zuen estrategia politikoen aldetik, baina hori prentsan ukatzera iritsi ziren, eta foro politikoetan ukatzera iritsi ziren, hau da, ez zegoen ezertaz hitz egin beharrik, izan ere herriaren existentzia bera ere eztabaidan jartzen den. Azkenean, alde batera utzita zein izen ematen zaion, ados jarri ahal izatea benetan bi estatu-egituratan badagoela euskal herri bat, eta, gainera, mugaren alde batean ez dutela ezta egitura politiko-administratiborik ere, non bertako hizkuntza bera ere ez duten baimenduta, hau da, laido gisa ikustea hautetsien elkarte bat sortzea mota askotako politika egiten hasteko, baina bi errealitate horiek, historiaren orban batez apurtuak, batera ezin lan egiteari, horrexeri erantzun nahi zion Udalbiltzak, eta mila aldiz esan du hasieratik horren parte izan denak, hau da, ea hasten den ikusten benetan badagoela ados jartzeko aukera eta gaur egun bi egitura administratibotan edo hirutan edo zenbanahitan dagoen herri bateko herritarren alde lan egiteko aukera, hori aurrerapena iruditzen zaio, horren izena Udalbiltza izan edo beste edozein izenez deitu, baina berari aurrera egitea iruditzen zaio.

Adierazi du mintzaldia gustatu zaiola eta berari oso barrura iritsi zaiola; ez daki Alderdi Sozialistaren bozeramailearen beraren iritzia den, Alderdi Sozialistaren ideia helarazi duen, edo hausnarketa sakonagoak jasotzen dituen, baina berari oso barrura iritsi zaio.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, adierazi du Iñaki Gomendiourrutia Sáinzi eskerrak eman nahi dizkiola bilera hauetan azaldu ohi duen tonu gozoarengatik eta erabiltzen duen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

umorearengatik, izan ere beti laguntzen dute gauzak desdramatizatzen, hori garrantzitsua da; gainera, Ezker Batuaren jarrera nahiko malgua eta errealista da, eta berak aisa onartzen du bere taldearen jarrera, oso ongi ulertzen du.

Alderdi Sozialistaren bozeramailea bikain aritu da, pentsatzen du azkeneko gertakariak animatu egiten dutela eta uste du animatuta egoteko arrazoiak badituela. Esango luke hark esandako ia guztia izenpetuko lukeela, nahiz eta bi gauza aipatu nahiko lituzkeen; uste du kontraesan txiki bat dagoela, izan ere hasi zara esaten proiektu honek oso asmo nazionalista oldarkorra duela eta gero aitortu duzu Aurrekontuan Alderdi Sozialistaren jarreretara hurbiltzeko ahalegina egin dela. Berak esango lioke nahita egin dutela, guztiz aurrekontu ezberdina egin zezaketen, baina uste du aurrekontu honen bitartez Leioari bultzada berri bat ematen zaiola, Leioa unibertsitate-hiri txiki bat bihur dadin; berari adierazpen hori entzungo litzaioke beti. Uste du bultzada bat ematen diola hainbat alderditan: oreka, garapen jasangarria, ekipamendu gehiago, eremu publiko gehiago, garapen ekonomiko handiagoa; uste du ahalegina egiten dela gizartearen esparruan, izan ere ez ditu inoiz beldurtu gizarte mailako ahaleginak, aukera- eta berdintasun-planari lotutako gaiak, hori ere ikuspegi ona dela jotzen baitu. Azkenean hauek nazionalistak direla baina ahalegina egin dutela eta elkargune bat bilatu dutela esatera iritsi da, eta berariaz horixe egiten saiatu dira.

Adierazi du transakzio-aukerak dauden guztietan egin egingo direla, baina Alderdi Popularrarekin ezinezkoa dela, izan ere funtseko balorazioez gain eta nahiko dibertigarria den finantzaketa-gaiak gain aurkezten dute, lehenago Iñaki Gomendiourrutiak adierazi duen moduan, aurreko osoko bilkuran entzun eta gaur entzun, kontrakoa esaten du, baina jakina, presio fiskala jaitsi nahi bada, baina gero diru-bilketa hazi behar dela esaten bada, argudiatu ahal izango da baina azkenean gaia ez da sostengatzen. Zuzenketak eskema itxia mahairatzen baldin badute, hau da, aukera dena onartzea edo ezer ez onartzea baldin bada, bada ez dute ezer onartzen. Adierazi du Gobernu Taldearen jarrera beti izango dela gustuko duten proiektu bat egitea, izan ere uste du ildo onean doala, Leioa hobetzen jarraituko duela eta hori nabaritzen ari dela; gainera ikusi egiten du, eta azkenean arazorik gabe onartzen dituzte azkeneko psikopedagogo-hausnarketak, baina azkenean aztertzen duena herritarra da. Gustu handiz onartzen ditu balorazioak, baita nota ere, izan ere badaki onginahiez egiten duela, izan ere beregan dagoen tonu gizatiarra estimatzen du, uste du batzuetan pasa egiten dela, baina denak gizatiarrak direla imajinatzen du.

Bere hizketaldiari amaiera emateko, adierazi du aurrekontu-proiektua oso ona dela eta esan duen guztiaren ondoren, oso ona dela uste duela hain zuzen ere Gobernu Taldeak ona izan dadin ahalegina egin duelako, eta abstenitu egiten direla, beste arrazoi batzuek kanpo, lortu du telako eta horretaz poztu egiten da.

Adierazi du horrekin hitz egiteko txandari amaiera emango zaiola eta aurrekontuaren azken bozketari ekingo zaiola.

OGASUN ETA KONTUEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA, EAJ-PNV ETA EA TALDEEK AURKEZTUTAKO HIRU TRANSAKZIO-ZUZENKETAK SARTUTA.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta EAko zinegotziarena; **kontrako lau boto**, PPko lau zinegotzienak; **bost abstentzio** ere egon dira, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Beraz, udalaren osoko bilkurak **onetsi egin du** 2006. urterako aurrekontu finkatua, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutakoaren arabera, eta EAJ-PNV eta EA taldeek aurkeztutako hiru transakzio-zuzenketak sartuta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Horiek Genero indarkeriaren kontrako kanpaina eta aurrez aurreko plana, EHUrekin sinatu beharreko hitzarmena eta lkerketa, azterlan eta proiektuen partidari buruzkoak dira.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

9.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-11-26tik 2005-12-16ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

10.- PRESAZKO MOZIOAK

EUSKAL TOKI ERAKUNDEETAKO LANGILEEN LAN BALDINTZEI BURUZKO AKORDIOA: Alkate-lehendakariak aipatu du datako egunean, Barne Araubideko Informazio Batzordearen bilkuran, 134 zenbakiko irizpena eman zela, behean adierazia, izan ere Leioak 2005 ekitaldiarekiko ordainsari-igoerak aplikatu behar dira, horren gain %2,4ko entrega egin zen kontuan. Hori dela eta, aurreikusi den hazkunde-ehunekoa ordaintzea erabaki da, 2005. urteko aurrekontuaren kargura. Azaldu du udal taldeen bozeramaileei esan ziela gai hori osoko bilkura honetan presazko gai gisa aurkezteko asmoa zuela eta talde horiek ados zeudela.

"2005eko abenduaren 19an, EUDELeK eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuek akordioa onetsi dute euskal toki erakundetako lan harremanetarako esparru bat eratzeko.

Akordio horren hirugarren atalak honakoa dio:

"HIRUGARRENA. Aldeen konpromisoa EZARTZEA 2006ko martxoaren 1a baino lehen EUSKAL TOKI ERAKUNDEETAN LAN HARREMANETARAKO ESPARRUAN AKORDIO OROKOR batera iristeko. Akordio hori hiru dokumentuz osatuta egongo da:

Akordio-protokolo bat, Esparruko Akordio Orokorren gai orokorrak arautuko dituzte akordio horiek; horrek barne hartuko du Akordioak interpretatzeko sistema bat eta bere aplikazioan sor litezkeen ezberdintasunetarako bitartekaritza eta arbitraje sistema bat.

Funtzionarioentzako erregulazio-testu oso bat, Euskal Toki Erakundeetako Funtzionarioen lan Baldintzak Arautzeko Akordio-Tipo izenburukoa. Horren aplikazio, baliotasun eta eraginkortasunerako, beharrezkoa izango da erakunde bakoitzean lege ezarritako organo kolektiboan negoziatzea eta gero dagokion gobernu-organismoak berariaz eta formali onestea.

Eta Euskal Toki Erakundeetako langileei aplikatzeko Hitzarmen Kolektiboaren testua.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Atal horri jarraiki, datako egunean Udal Gobernuaren ordezkari eta udal honetan ordezkari duten sindikatuak bildu dira Alkatetzan, lortutako akordioa onestea eztabaidatzeko eta ondoren Udalbatzaren iritzira jartzeko.

ELAren ordezkariarekin egindako bilera horretan, akordio horrekin ados dagoela erakutsi da; LABek, berriz, horren berri izan duela jakinarazi du; erabaki da Udalbatzaren iritzira jartzea berresteko, eta interesekotzat jo da bertan jasotzen den ordainsari-erregimena berehala aplikatzea. Jose Manuel Toledo Cañamero jaunak eta Susana González Rómulo andreak, biak PSE-EE-PSOEkoak, desadostasuna agertu dute akordioarekiko oro har hartuta, baina ados azaldu dira 2005. urterako proposatutako ordainsari-igoerarekin. Beren ustez, gainontzeko proposamenak, gehienak, legeak arautu beharko lituzke, eta ez erakunde eta sindikatuen arteko itun batek. Nolanahi ere, gaineratu dute akordioan bertan ezartzen zela 2006ko martxoaren 1a baino lehen lan harremanen esparru orokor batera iristeko konpromisoa. Akordio horri lotu ahal izango liratekeelako konfiantza dute.

Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta Arturo Aldecoa Ruiz jaunak ere, biak PPkoak, beren adostasuna adierazi zuten 2005. urteko ordainsari-igoerarekiko. Hala eta guztiz ere, akordioaren gainerako alderdiei dagokienez, gehiago eztabaidatu beharko litzatekeela uste dute.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunaren, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren, Ainara Urbietta Bergara andrearen eta Bea Resa Bardeci andrearen aldeko botoekin eta EAko Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunaren aldeko botoarekin, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren eta Arturo Aldecoa Ruiz jaunaren abstentzioarekin eta PSE-EE-PSEOk Jose Manuel Toledo Cañamero jaunaren eta Susana González Rómulo andrearen kontrako botoarekin, proposatutako akordioaren aldeko irizpena eman du, eta, halaber, 2005. urterako ezarritako ordainsari-igoera berehala ordaintzea.

Alkate jaunak bozketa presaz egiteko agindua eman du.

PREMIARI BURUZKO BOZKETA

Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki (azaroaren 28ko 2.586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen erregelamendu hori), mozioaren presakotasunari buruzko botoa eman da. Udalbatzak gai honen presakotasuna onestea erabaki du, eta ondoren gaia eztabaidatu eta bozkatu egin da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du hitza hartu duela azaltzeko, hasiera batean, gaiaren mamian sartu gabe, gai honetan bere taldea abstenitu egingo dela, nahiz eta ez duten ezer mahairatzen den %4,1eko ordainsari-igoeraren alderdiaren kontra; are gehiago, hori babestu ere egin lezakete, baina alderdi horrekin batera urterokotasun ezberdinei eragiten dieten etorkizuneko akordio edo akordio-proposamenak datozenez, beraien ustez ez da egokia mahairatzen den proposamenaren dokumentu osoari buruzko erabakia une honetan hartzea.

PSE-EE-PSOEko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Adierazi du bere taldeak gai-zerrendako puntu honetan ezezko botoa emango duela, eta mahai gainean gai bat jarri nahiko luke. Esan du ezezko botoa emango dutela; ados daudela 2005. urterako %4,1eko igoera egitearekin, baina ezezko botoa ematearen arrazoiak beste batzuk direla, hain zuzen ere, batzuekin ados ez daudelako, eta hori jakinarazi zaio alkate jaunari, akordio horretan dauden atal batzuekin, beraiei



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Administrazioaren barne aldaketak direla iruditzen zaizkiela. Nolanahi ere, dakienez, uste du akordio honen eztabaida edo negoziazioa martxora arte egongo dela irekita, eta Alderdi Sozialistaren asmoa une horretan akordio batera iristea da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du oso labur azalduko duela.. Oker ez baldin badago, hau Leioako Udaleko langileentzat 2005. urteari aplikatzea proposatzen da, eta hortaz, bere botoa baiezkoa izango da.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Honakoa izan da bozketaren emaitza: aldeko hamahiru boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, EB-Berdeak taldeko bi ordezkariak eta EAko ordezkariarena; lau abstentzio, PPko lau zinegotziak; eta kontrako hiru boto, PSE-EE-PSOeko hiru zinegotziak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz onetsi du proposatutako erabakia**, bai eta 2005. urterako ezarritako soldata-igoera berehala ordaintzea ere.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Honako eskaera hauek egin dira:

1.- PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

A) Bake epailearen izendapenari buruzko eskaera

Adierazi du bi eskaera egin behar dituela; lehenengoa uztailean osoko bilkura honetan atera ziren hainbat ideiri buruzkoa da, bake epailearen eta ordezkorearen izendapena onetsi zenean pleno honetan erabaki zenari buruzkoa, alegia, Barne Erregimeneko Batzordean agertu behar zutela postu horiek betetzen dituzten pertsonak sakonkiago ezagutzeko; gaurko egunean oraindik ez dira agertu, eta talde honen eskariari erantzuteko gogorarazi nahi da.

B) Mendibile jauregia egitekoa den bisitari buruzko erregua.

Bigarren erreguaren gaia uztaileko osoko bilkura horretan bertan Mendibile Jauregia Elkarteari buruzko eztabaidaren harian proposamen bat ere egin zela da, hau da, udal talde politikoek ez zutela instalazioa ikusi edo egiaztatzeko aukerarik izan eta horregatik esan zitzaieen batzorde bat egingo zela edo Hirigintza Batzordean gaiari buruzko xehetasun guztiak emango zirela, eta instalaziora jo ateko aukera izango zela; eta gaurko egunean, hainbat hilabete igaro ondoren, oraindik ez da Mendibilaren proiektuari buruzko informazioa eman batzordean eta, halaber, ez da instalaziora joateko proposamena ere; hori dela eta, zegokion unean osoko bilkuran egin zen proposamena gogorarazi du.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du lehenengo erreguari dagokionez barne Erregimeneko Batzordeko lehendakariari hitzordua eskatzen diola Eguberri ondorenerako, eragozpenik gabe.

Mendibilaren gaiari dagokionez, eta kontuan hartuta ekipamendu guztia, altzariak, soinua, audioa etab. esleitu dela eta une honetan instalatzen ari dela, uste du ondo iruditzen bazaie egokiena dela Mendibilera dena ipinita dagoenean joatea. Denak elkarrekin joatea proposatu du, eta denak elkarrekin egoteko eta ospatzeko aukera izatea.

Azkenik, Eguberri On opatu die denei, eta adierazi du berariaz Rubén Beldandia jauna zoriondu nahi duela, aurten Olentzero izango baita. Esan du ez zuela Ezker Batuari



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

transakzio politikorik egiteko asmorik udal arloko erabakietan babes ditzaten, baina uste du pertsona onaren aurpegia duenez eta, gainera, pertsona ona dela uste duenez, eta, horretaz gain, ezaugarri duen bizarra ikusita, Olentzero onaren papera egin dezakeela, eta ekitaldi honetan onak izan direnei ezer ekarriko dien galdetu dio.

EB-Berdeak taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunak honakoa adierazi du:

Bai, eskerrak eman nahi dizkizuet ni izendatzeagatik, eta zuen eskutitzak begirune bereziaz hartuko ditut.

Eta gaueko bederatziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,